

# Enpresak eta eragin sozioekologikoak

## 4 kasu-azterketa El Salvadorren, Kolonbian eta Bolivian





# Enpresak eta eragin sozioekologikoak

4 kasu-azterketa El Salvadorren, Kolonbian eta Bolivian



**Koordinatzaileak:**

Erika González eta Ane Garay.

**Egileak:**

Jorge Campanini, Marco Gandarillas, Ane Garay Zarraga, Erika González, Georgina Jiménez, Silvia M. Pérez, Pedro Ramiro, Antonio Sandá Mera, Pablo Villegas.

**Kolaboratzaileak:**

Centro de Documentación e Información – Bolivia (CEDIB), Centro de Investigación sobre Inversión y Comercio (CEICOM), Corporación Cactus, Marta González Reyes, Pablo Fontel, Francisco Cacheira, Noel García eta Betsy Pérez.

**Diseinu grafikoa eta maketazioa:**

Marra Servicios Publicitarios

**Inprimaketa:**

Centro Gráfico Ganboa

**Argitaratze-data:**

2014ko ekaina

*Erreprodukzioa baimenduta, betiere, iturria aipatzen bada, zabalkunde, sentsibilizazio eta prestakuntzarako erabiltzen bada, eta irabazi asmorik gabekoa bada. Argibide gehiago izateko, jarri harremanetan Bakea eta Duintasuna elkartearekin.*



**Bakea eta Duintasuna** irabazi asmorik gabeko erakundea da. 1995ean sortu zen eta egungo eredu neoliberal aldatzeko lanean dihardu, desberdintasunen eta injustizien sortzaile diren arrazoiei aurre egin nahian. Giza eskubideen alde egitea, elkartasuna eta garapenerako lankidetzara dira lan horren ardatza. Ildo berean, Iparraldeko eta Hegoaldeko gizonen eta emakumeen arteko bidezko eta elkartasunezko gizarte-harremanak sustatzen ditu. Bere lanean hainbat arlo jorratzen ditu, hala nola, sentsibilizazioa, hezkuntza, elkartasunezko eta giza eskubideen aldeko sareetan parte hartzea eta liburuak, argitalpenak (Pueblos aldizkaria, [www.revistapueblos.org](http://www.revistapueblos.org), esaterako) eta bestelako hezkuntza-materiala editatzea.

**Bakea eta Duintasuna / Paz con Dignidad**  
Gardoki Kardenalaren kalea, 9, 5, esk.  
48008 - Bilbo  
Tel: (+34) 946 552 944  
[euskadi@pazcondignidad.org](mailto:euskadi@pazcondignidad.org)

**Asociación Paz con Dignidad**  
Gran Vía, 40, 5º Ofic. 2  
28013 - Madrid  
Tel.: (+34) 915 233 918  
[pazcondignidad@pazcondignidad.org](mailto:pazcondignidad@pazcondignidad.org)

[www.pazcondignidad.org](http://www.pazcondignidad.org)



**Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL)** proiektua 2003an sortu zuen Bakea eta Duintasunak, Espainiako enpresa transnazionalen jardunak Latinoamerikako gizartean, ingurumenean, kulturen eta ekonomian eragindako ondorioak ikertu, dokumentatu eta sistematizatzeko helburuarekin. Espainiako multinazionalak eskualdean izateak dakartzan ondorioei buruz informatzea eta sentsibilizatzea da OMALen xedea, eta horretarako, erakunde sozial, politiko eta sindikalekin lan egiten du, sarean, eta baita bestelako erakunde, unibertsitate, GGKE eta Latinoamerikako eta Espainiako estatuko ikasketa-zentroekin ere.

[observa.empresas@omal.info](mailto:observa.empresas@omal.info)  
[www.omal.info](http://www.omal.info)



Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin gauzatu da.

# Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b>	<b>5</b>
<b>El Salvador. Meatzaritza transnazonala Erdialdeko Amerikan: Cerro Blancoren kasua</b>	<b>19</b>
1. Sarrera	21
2. Eragin nagusiak	23
2.1. Dimentsio ekonomikoa	24
2.2. Dimentsio politikoa	25
2.3. Dimentsio soziala	26
2.4. Ingurumeneko dimentsioa	26
3. Cerro Blanco meatzearen kontrako erresistentzia	30
3.1. Funtsezko unea Erdialdeko Amerikako meataritzaren aurkako borrokan	31
<b>El Salvador. Energia elektrikoaren negozioa Erdialdeko Amerikan: El Chaparralen kasua</b>	<b>33</b>
1. Sarrera	35
2. Inpaktu nagusiak	39
2.1. Dimentsio ekonomikoa	40
2.2. Dimentsio politikoa	41
2.3. Dimentsio soziala	44
2.4. Ingurumeneko dimentsioa	45
3. Erresistentziak eta proposamenak	46
3.1. El Chaparralek kaltetutako komunitateak	47

<b>Kolonbia. Emakumeak loreen industrian</b>	<b>49</b>
1. Sarrera	51
2. Eragin nagusiak	53
2.1. Dimentsio ekonomikoa	54
2.2. Dimentsio politikoa	54
2.3. Dimentsio soziala	55
2.4. Ingurumeneko dimentsioa	58
3. Lan eta bizitza duinaren aldeko borroka: sindikatuak eta erakunde sozialak	60
3.1. Lan-eskubideen babesa: aurrerapenak eta zailtasunak	60
3.2. Hautabideak eraikitzeke sareak eta erakunde sozialak	61
<b>Bolivia. Erauzketako industrien mugak: Aguaragüeko biodibertsitatearen arazoa</b>	<b>63</b>
1. Sarrera	65
2. Eragin eta mehatxu nagusiak	68
2.1. Ingurumeneko dimentsioa	69
2.2. Dimentsio kulturala	74
3. Ondorioak eta proposamenak	76



## Aurkezpena







**Azken mende eta erdian,** kapitalismo globalak aurrera egin ahala, eta nazio-estatuak erabaki sozioekonomikoekiko burujabetza partzialki laga duten heinean, enpresa transnazionalak areago zabaldu eta sendotu dute handituz doan planetaren gaineko beraien nagusitasuna. Hori azken hiru hamarkadetan gertatu da bereziki, globalizazio ekonomiko prozesuen aurrerapenaren eta politika neoliberalen zabalkuntzaren bitartez mundu-mailako egitura politikoa, ekonomikoa, juridikoa eta kulturala eraiki baita, eta korporazio handiak izan baitira horren onuradun nagusiak.<sup>1</sup>

Gaur egun, multinazionalak mundu-ekonomiaren sektore estrategiko gehienak kontrolatzen dituzte: energia, finantzak, telekomunikazioak, osasuna, nekazaritza, azpiegiturak, ura, he-dabideak, eta armen eta elikaduraren industriak. Gaur egungo krisialdi kapitalistak areago indartu ditu korporazio handien rol ekonomikoa eta indar politikoa, zein baliabide naturalekin, zerbitzu publikoekin eta higiezinaren espekulazioaren bitartez, zein energia eta elikagaien etorkizuneko merkatuen, bizitzaren gaineko patenteen edota lur metaketaren bitartez negozioia egiten dutelarik.

Enpresa transnazionalak pilatutako izugarritzko irabaziak kapitalismoaren funtzionamenduaren oinarrian dauden aberastasun ekonomikoaren ateratze eta jabetze mekanismoetan dute jatorria. Handituz doan langileen esplotazioa eta soldaten etengabeko baliogutxitzea, lehengaiak eta baliabide naturalak aurkitzeko ingurunearen gaineko presio mugagabea, bai lortutako soberakinaren bai erosi eta saltzeko modukoa den guztiaren gaineko finantza-espekulazioa, giza jardueri lotutako gero eta esparru gehiagoren merkantilizazioa, eta bizitza ahalbidetzen duten prozesuen aurrean kapitalaren erreproduzitze mekanismoek duten erabateko lehentasuna, korporazio handietako zuzendari eta akziodun nagusiak izugarri aberats bilakatu izana ahalbidetzeko tresna nagusiak izan dira. Hala ere, ohiz kanpoko enpresa-etekin horiek ez lirateke posible izango zuzenean mundu osoko jendegune eta ekosistemen gaineko hainbat inpaktu sozioanbiental eragin barik.

1 Enpresa transnazionalak hain esparru desberdinetan –ekonomian, zuzenbidean, lan-harremanetan, nazioarteko politikan eta garapenerako lankidetzan– duten eragina sakon aztertzeko, ikusi hau: J. Hernández Zubizarreta, E. González eta P. Ramiro (arg.), *Diccionario crítico de empresas transnacionales. Claves para enfrentar el poder de las grandes corporaciones*, Icaria, Bartzelona, 2012.

Azken urteotan kontsumo-mailen erorketa, erregai fosilen agorpen progresiboa eta erdialdeko herrietan kapital transnazionalaren irabazi-tasen beherapena direla eta, korporazio handiek kostuak gutxitzeko estrategia indartsua jarri dute abian, eta, aldi berean, erasoaldia areagotu dute negozio eta merkatu-esparru berrietara sarbidea lortzeko. Testuinguru oldarkor honetan, ezin baitzen bestela izan, gatazka sozioekologikoak eta giza eskubideen urraketak ugaritu egin dira mundu osoan barrena, ondorioztatutako enpresa eragin hauen aurkako borroka sozialen hazkundearekin.

### **Arlo teorikoa: Eragin sozioekologikoen ezaugarriak**

Negozio-eskolek eta konpainia multinazionaleri lotutako *think tank*-ek enpresa transnazionalen nazioarteko presentzia herri periferikoetara helduera justifikatzeko agindutako garapen eta ongizate helburuei lotzeko azterketak eta ikerketak egin dituzte. Jendarteko legitimazioa handitu eta “krisialditik ateratzeko” ezinbesteko aktore gisa agertzeko helburuarekin, objektibotasunez eta neutraltasunez mozorrotutako teoriak aurkezten dituzte, beren jarduerak hainbat alderditan dituzten eragin positiboak erakutsi nahian, hala nola teknologia eskualdaketa, ondasun publiko eta pribatuen horniduraren hobekuntza, lanaren gehikuntza, lan-merkatuarekiko emakumeen sarrera, eta inbertsioaren sustapena garapenaren motor gisa.<sup>2</sup>

Horren aurrean, hainbat ikasketa-zentro, gobernuz kanpoko erakunde eta mugimendu sozialek, baita akademiaren sektore batzuk ere, egungo eredu sozioekonomikoaren esparruan korporazio transnazionalen hedapen globalak dituen ondorioei buruzko dokumentazio – eta sistematizazio-lana egiten ari dira. Ikerketak hiru gako nagusi frogatzeko baliagarriak izan dira batez ere.

Lehenik eta behin, enpresa transnazionalek ez dutela enpleguaren, ezta eskaintzen dituzten zerbitzuen kalitatea eta kopurua hobetzeko ekarpenik egin. Izan ere, mantentze-inbertsiorik ia ez dute burutu, teknologia transferitzeko prozesuak ia ez dituzte ahalbidetu eta, azken batean, eskualdeko jendeguneei ez dizkiete aurrerabiderik ezta ongizaterik ere ekarri, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako pribatizazio eta erreforma neoliberalen ostean iritsi zirenean hala agindu bazuten ere. Bigarrenik, gogoeta ekonomikoekin batera, enpresa hauen negozioen internazionalizazioari lotutako eragin sozial, politiko eta ambiental larrien erabateko zerrenda bat dago dagoela. Eta, hirugarrenik, egoera honekin irabazle atera direnak ez direla langileak eta gehiengo sozialak izan, konpainia hauen jabeak, kapitalaren errenten onuradunak eta esparru publikoa eta enpresa-mundua lotzen dituzten ate birakariak zeharkatuz izugarri aberastu diren politikari eta enpresariak baizik<sup>3</sup>.

---

2 Fundación Carolinaren eta Instituto Elcanoren argitalpen askok sakonago lantzen dute gaia, adibidez, hau: I. Olivíe, A. Pérez eta C.M. Macías, *Inversión Directa Extranjera y desarrollo: recomendaciones a la cooperación española*, Real Instituto Elcano, Madril, 2011.

3 P. Ramiro, *Marca España, ¿A quien beneficia?*, Icaria, Bartzelona, 2014.



Aldi berean, erakunde hauek multinazionalak eragindako gatazka sozioekologikoen ezaugarritzerako zenbait tresna garatu dituzte.<sup>4</sup> Hortaz, inpaktu hauen sistematizaziorako proposamen desberdinak daude, hala ere, ikuspegi osagarriak dituztelarik: batzuek transnazionalen jarduera-sektoreetan indarra jarri eta korporazio handiek burututako giza eskubideen urraketetan politika, tresna eta aktore sopikunen erradiografia bat burutzen duten bitartean<sup>5</sup>, beste batzuek, zehatz deskribatzen dituzte konpainia horiek eragindako kalteen garrantzia eta adierazleak<sup>6</sup>, edo eragin horien esparru juridiko eta sozioekonomikoa aztertzen dituzte.<sup>7</sup>

Gure ustez, eta ondoko taulan jasota dagoenez, enpresa transnazionalen operazioen ondorioak oinarrizko bost dimentsiotan laburbil daitezke: ekonomikoa, politikoa, soziala, ingurumenekoa eta kulturala. Era berean, horietatik beste eragin batzuk ondorioztatzen dira: lan-, zerga-, genero-arlokoak...

---

4 Besteak beste, bakan batzuk aipatzeagatik, konpainia horiek jendarte, ingurumen eta kulturaren gainean sortutako eraginak mapan kokatzeko ekimenak, Globalizazioaren Zorraren Behatokiak (ODG), FUHEM-Ecosocialek eta Herri Indigenen Eskubideen aldeko Koordinakundeak (CODPI) abiarazitakoak; edota herrialde, enpresa eta sektore ekonomikoei buruz egindako ikerketa zehatzak, Espainiako plataformak eta erakundeak aipatzen jarraitzeagatik, honako hauek egindakoak: Campaña Ropa Limpia, ¿Quién debe a Quién?, Ingeniería sin Fronteras, SETEM, Justicia i Pau, Ecologistas en Acción, Veterinarios sin Fronteras eta Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia (OMAL) – Bakea eta Duintasuna.

5 D. Llistar, “Clasificación de los impactos habituales de las transnacionales en la periferia”, *Viento Sur*, 97. zk., 2008.

6 L.M. Uharte, *Las multinacionales en el siglo XXI: impactos múltiples. El caso de Iberdrola en México y en Brasil*, Editorial 2015 y más, 4. zk., 2012.

7 A. Teitelbaum, *La armadura del capitalismo. El poder de las sociedades transnacionales en el mundo contemporáneo*, Icaria, Bartzelona, 2010.

Enpresa transnazionalen jardueren dimentsio eta eraginak, Espainiako multinazionalen adibideekin		
Dimentsioa	Eraginak	Adibideak
Ekonomikoa	Tokiko produkzio-ehunaren suntsipena.	Calvo El Salvadorren: gehiegizko arrantza-ustiapena eta ekoizpen-fabrika muga-zergarik gabeko esportazio eremu batetan finkatzea.
	Delitu ekonomikoak: iruzurra, ustelkeria, eroskeria.	FCC, OHL eta Sacyr Vallerhermoso Espainian: alderdiak legez kontrako finantzaketa mesede politikoen truke ("Bárceñas kasua").
	Zerga saihestea.	Ibex-35ean kotizatzen duten Espainiako 35 enpresetatik 33k (% 94) zerga paradisuetan dituzte sozietateak: guztira 437 filial (Santander, 72; BBVA, 43; Repsol, 43).
Politikoa	<i>Lex mercatoria</i> eta subiranotasunaren galera.	Repsol Argentinan: CIADIn (Munduko Bankuaren auzitegia) Estatuari jarritako salaketa YPFren nazionalizazioa zela eta.
	Demokrazia-urritasuna eta <i>lobby</i> .	Gas Natural Fenosa Nikaraguan: Nikaraguako gobernuaren zigorrak saihesteko enpresaren presioa.
	Kriminalizatzea eta errepresioa.	Hidralia Guatemalan: Barillasen urtegi hidroelektrikoa egitearen kontra dauden biztanleen eskubide zibil eta politikoen urraketa.
Soziala	Zerbitzu publikoen pribatizazioa.	Isabel II.aren kanala Kolonbian: unibertsaltasun eta zuzentasun eza ur-horniduran, prezio handien eta hain errentagarriak ez diren guneetan inbertsiorik ez egitearen ondorioz.
	Lan-baldintzak eta eskubide sindikalak.	Sol Meliá, Marsans eta Barceló Mexikon, Erdialdeko Amerikan eta Kariben: lan-esplotazioa eta lan-eskubideak babestuko dituen erakunderik ez egotea.
	Genero-desberdintasunak.	Inditex eta Mango Marokon: emakume langileek lan-ordu gehiegi, soldata baxuak, neurriz gaineko diziplina-neurriak... pairatzen dituzte.
Ingurumenekoa	Airea, ura eta lurra kutsatzea.	Repsol Ekuadorren: Yasuní Parke Naturelean kokatutako huaorani herriaren lurraldea petrolioz kutsatzearen ondoriozko gaixotasunen hazkundera.
	Biodibertsitatea galtzea.	Iberdrola Brasilen: Xingú ibaian, Amazoniako oihanaren erdian, Belo Monteko makropresa eraikitzen duen enpresa-partzuergoan parte hartzea.
	Lurraldea suntsitzea eta biztanleak lekualdatzea.	Endesa Kolonbian: Alto Magdalena probintzian El Quimbo zentral hidroelektrikoa eraikitzea.
Kulturala	Hedabideak kontrolatzea.	PRISA Latinoamerikan: irrati, telebista eta hedabide garrantzitsuen jabetzaren bitartezko iritzi publikoaren kontrola.
	Hezkuntza pribatizatzea.	Banco Santander Latinoamerikan: hitzarmenak 1.100tik gorako unibertsitateekin, Unibersiaren bidez.
	Herri indigenen eskubideak.	Endesa Txilen eta Repsol Bolivian: komunitate indigenak lekualdatzea eta indigenen mundu-ikuskera hondatzea.

Konpainia multinazionalak eragindako inpaktu nagusiak barne hartzen dituen deskribatu berri dugun marko teoriko honen bidez, argi ikus dezakegu korporazio handiek arlo ekonomiko, politiko, sozial, kultural eta ingurumenekoan duten boterearen, eta arlo horietan sorrarazten



dituzten eraginen artean, marraztu daitekeen lerroaren jarraitutasuna. Hau da, transnazionalak mundu osoan zehar egoteak dituen eragin kaltegarriak ez dira “jokabide txarren” emaitza negatibo hutsak, transnazionalek beren boterea maila guztietan mantendu eta areagotzeko behar dituzten beharrezko baldintzak baizik.

Horiek horrela, korporazio handiei aurre egiten dieten borroka eta mobilizazio sozialen indarra eta bizitasuna handituz doaz egunetik egunera<sup>8</sup>: erabiltzaileek, kontsumitzaileek, sindikalistek, feministek, ekologistek, indigenek, ekintzaileek eta, batez ere, enpresek eragindako inpaktuak zuzenean pairatzen dituzten pertsonak funtsezko zeregina betetzen dute pobrezia eta desberdintasuna globalizatzen dituen eredu ekonomikoan enpresa multinazionalak duten erantzukizuna salatzekeo aldarrikapenetan.

Horregatik, enpresa transnazionalak munduan zehar hedatzerakoan burutzen dituzten gehiegikeriak aztertzen, salatzen eta horien kontrako mobilizazioak antolatzen jarraitzea ezinbestekoa da. Ez soilik gehiengo sozialen funtsezko eskubideak babesteko, baita hausnartzeko eta multinazionalak sistemaren erditik alboratu eta gure planetan bizitza sustatzen duten pertsona eta prozesuei lehentasuna emango dieten bestelako ereduak proposatzeko ere.

Jarraian aurkezten ditugun ikerketek proposamen hau jasotzen dute, zalantzan jartzen dute korporazio handiei lotutako “garapena”, politika hegemonikoek akumulazio eta hazkunde logikekin jarraitzeko multinazionalak aktore nagusitzat jotzen duten momentu batetan. Transnazionalek leku eta herri jakin batzuetan eragindako ondorioei buruzko lekukotasunak, datuak eta erregistroak aurkezten dituzten kasu-azterketen bitartez, gutxiengo batek –akziodun handiek eta goi-mailako zuzendariak– lortutako irabaziaz gizaratearen gehiengoaren aurreapenarekin eta ongizatearekin identifikatzen dituen logika hori hautsi daiteke.

### **Multinazionalak, krisi ekologikoa eta genero-desberdintasuna**

Egungo ekoizpen – eta kontsumo-ereduari eusteko ezinbestekoa den natura-baliabideen esplotazio biziak aurrekaririk gabeko krisi ekologikoa sortu du. Materialen eta energiaren eskaera etengabe handituz doan bitartean, baliabide horiekiko mendekotasuna gutxitu eta beren eraginkortasuna indartu delako pertzepzioa sustatzen da, batez ere herrialde nagusietan. Sortu diren ingurumeneko arazo larriei aurre egin ordez, goraka doan eskaerari bihotz ematen jarraitzen da, eta, horri loturik, lehengaien prezioek gora egiten dute. Azkenean, mineralak, hidrokarburoak, ura, lurra... ustiitzen dituzten enpresa transnazionalak dira onuradun nagusiak, burutzen dituzten erauzketa proiektuek izugarritzko errentagarritasuna dutelako.

Latinoamerika izan da azken urteetan erauzketa-proiektuen hazkuntza nabarmenago bat jasan duen eskualdeetako bat. Kaltetutako nekazariak eta indigenek, hala nola ingurumen eta giza eskubideen arloko erakunde desberdinek, erantzuna eman diote logika suntsitzaile horri. Beren lehentasunezko borroka ekosistema akuatikoen eta ur-iturrien suntsipena saihestea

8 E. González eta P. Ramiro, “Resistir a las transnacionales. Los movimientos sociales frente a las grandes corporaciones en Europa y América Latina”, hemen: J. Hernández Zubizarreta, M. de la Fuente, A. de Vicente eta K. Irurzun (arg.), *Empresas transnacionales en América Latina: Análisis y propuestas del movimiento social y sindical*, UPV/EHU, Hegoa eta OMAL, Bilbo, 2013.

izan da, bizitza ahalbidetzeko ezinbestekoak, baita lurraldearen suntsipenari lotutako biodibertsitatearen galera mugatzea ere. Egungo ziklo estraktibistaren ondorioak –gehienbat ur eta biodibertsitateari begira– izan dira burutu diren hiru ikerlanen ardatza.

Krisialdi ekologikoarekin batera, genero-desberdintasuna izan da laugarren ikerketaren gai nagusia. Izan ere, gure sistema sozioekonomikoak emakumeen mendekotasuna eta zapalkuntza –beste faktore batzuekin batera– oinarritzat hartuz antolatu du bere burua. Multinazionalak periferiako eskualdeetara iristea –adibidez Latinoamerikako herrialde batzuetara–, emakumeak lan – eta gizarte-baldintza guztiz ezegonkorretan kontratatzeari lotuta dago. Era horretan, soldata-desberdintasunak, lanaren bereizketa sexuala eta zaintza eta gizarte-erreproduktzio zereginen inbisibilizazioa iraurazten dira<sup>9</sup>.

### **Hazkunde ekonomikoa eta garapena**

Ura, biodibertsitatea, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ezinbesteko gakoak dira bizitza duin baterako, eta badute dagokien isla garapen-agenda globala gidatu duten Milurtekoko Garapen Helburuetan. Horrela, 7. helburuaren arabera, urari eta biodibertsitateari lotutako helmugak finkatu behar dira, ingurumenaren iraunkortasuna lortzeko; eta 3. helburuari jarraiki, sexuen arteko berdintasuna eta emakumearen ahalduntzea sustatu behar da. Milurtekoko Garapen Helburuak analisi-ardatz gisa hartzea lagungarria izan liteke, betetze-maila neurtzeko aukera ematen duelako. Hala ere, alde batera utzi dira, muga ugari ditzutelako. Besteak beste, oinarritzat hartzen diren sozialak betetzea da haien xede ia bakarra, eta ez dituzte pobretzea, bazterketa, desberdintasuna eta hondamen ekologikoa sorrarazten dituzten arrazoiak aintzat hartzen. Errealitate ahistorikoa eta guztiz nazionala aurkezten dute, honen oinarrian dauden mundu mailako egiturak eta dinamikak kontuan izan gabe<sup>10</sup>.

Azken batean, Milurtekoko Garapen Helburuak, pobrezia eta laguntzaren eraginkortasunarekin batera, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera bultzatutako garapenaren inguruko ikusmoldearen erredukzio bat dira. Harrezkero, hamarkada batez, giza garapen iraunkorrak haustura ekarri zuen garapena hazkunde ekonomikorekin parekatzen zuen paradigma ortodoxoarekiko, eta bidea zabaldu zuen beste erreferentzia batzuk aintzat hartzeko, hala nola parte-hartze soziala, genero zuzentasuna eta ingurunearekiko bizikidetzak, besteak beste. XXI. mende hasieratik, hau da, Milurtekoko Garapen Helburuek garrantzia hartu zutenetik, alderdi sozialak, kulturalak, generoak eta ingurumenak garrantzia galdu zuten, eta alderdi ekonomikoari eman zitzaion lehentasuna berriz. 2008. urteko finantza-*crash*-aren ondotik, hazkunde ekonomikoa, merkatua eta enpresa multinazionalak dira behin betiko protagonistak pobrezia-aren aurkako borrokan<sup>11</sup>.

9 Erika González eta Pedro Ramiro, "Multinacionales, impactos y desigualdades de género", *Pueblos*, 55. zk., 2013ko urtarrila.

10 Gonzalo Fernández, Silvia Piris eta Pedro Ramiro, *Cooperación internacional y movimientos sociales emancipadores: Bases para un encuentro necesario*, Hegoa-UPV/EHU, Bilbo, 2013.

11 Pedro Ramiro eta Miguel Romero, *Pobreza 2.0. Empresas, estados y ONGD ante la privatización de la cooperación al desarrollo*, Icaria, 2012.



Horregatik, ikerketetan erabili den marko teorikoak ez du garapenerako agenda ofizialak ezarritako eskema betetzen. Horren orde, enpresa transnazionalen botere ekonomiko, politiko, juridiko eta kulturalari buruzko azterketa hartzen du oinarritzat, ondoren horiek sorrarazitako inpaktu ekologikoen ezaugarriak zehazteko. Era horretan, azterketaren fokua zabaldu da, eta nazioarteko fluxu eta politika ekonomikoak, baita horien ondorioak ere, hartu dira barne, garapenak dituen alderdi desberdinak kontuan izanda.

### **El Salvador, Kolonbia eta Bolivia**

Ikerketak El Salvadorren, Kolonbian eta Bolivian egin dira, garapenerako politika desberdinek multinazionalen jarduera eta inpaktuetan nolako eragina duten erakusten duten hiru adibide. El Salvadorri dagokionez, korporazio handien jokaera aztertzeke eskualde-ikuspegi bat beharrezkoa da, Erdialdeko Amerika osoa barne hartzen duten proiektu eta itunek zeharkatu eta baldintzatzen baitute bere ekonomia: Erdialdeko Amerikako Herrialdeen Interkonexio Elektrikoko Sistema (SIEPAC), Merkataritza Askeko Ituna Estatu Batuekin eta Elkartze-Akordioa Europar Batasunarekin. SIEPAC sistemak sorkuntza megaproiektuen esparruan inbertsio ugari metatzen ditu, batez ere energia hidroelektrikoari dagokionez. El Chaparraleko proiektu salvadortarra dinamika horren adibide da.

Era berean, Erdialdeko Amerikan meatzaritza metalikoak izan duen hazkuntzak eskualde-logika dauka baita ere, horretarako transnazionalen interesak bermatzen dituzten merkataritza askeko akordioak sinatzea ezinbestekoa izan delarik. Horiek horrela, El Salvadorren indarrean dago meatzaritza metalikoaren ustiapenari ezarritako luzamendua, honi lotutako ingurumenkalte larriak saihesteko. Dena dela, neurri horrek dagoeneko ez du aldameneko herrialdeetan garatutako meatzaritzak mugaz gaindi dituen eraginak saihestea lortu. Horixe da Guatemalan kokatutako Cerro Blanco meatzearen kasua, El Salvadorreko mugatik oso gertu.

Bestetik, Kolonbia atzerriko inbertsio zuzenaren Latinoamerikako herri jasotzaile nagusien artean kokatzen da, ondoz ondoko gobernuek laurogeita hamarreko eta 2000.eko hamarkadetan martxan jarritako irekitze, pribatizazio eta merkatuen liberalizazio neurriak elementu erakargarri indartsua izan baitira atzerriko kapitalentzat. Internazionalizazio maila altuenetarikoa daukan sektoreetako bat esportaziora zuzendutako agroindustria da, esate baterako, lore-hazkuntza. Gainera, loreen industria emakume gehien formalki enplegatzen dituen sektorea da, eta, beraz, emakumeen lan-baldintzak hobetzeko ekarpen gehien egiten duen eragileetako bat da.

Boliviaren kasuan –Kolonbian eta El Salvadorren ez bezala–, oraingo gobernuak baliabide naturalen gaineko herrialdearen burujabetza handitzeko eta Estatuak ekonomian duen eginkizuna bultzatzeko legeak eta politikak garatu ditu. Politika ekonomiko horien bidez, herrialdeak nazioarteko merkatura zuzendutako lehengaien hornitzaile gisa duen rola areago sendotu du –baita aberastasunaren gizarte banaketara neurri batean zuzendutako aurrekontu publikoak ahalbidetu ere–. Alabaina, esportazio-ereduari eustearen eta barne-hornikuntza asetzen saiatzearen ondorioz, ukitutako herri indigenekiko gatazkek gora egingo dute eta balio natural handiko ekosistemak suntsitu egingo dira.

Hortaz, Latinoamerikako hiru herrialdetan jarraitutako garapen-ereduen ezaugarri desberdinak ikusteak, enpresa handiek zein testuingurutan jarduten duten atzematea ahalbidetzen du,

hala atzerriko transnasionalek nola tokiko konpainiek, baita beraien jardunek desberdintzeko moduko inpaktuak sorrarazten dituzten edo patroï berbera jarraitzen duten aztertzea ere.

### **Metodologia eta ikerketa-prozesua**

Argitalpen honek 2012 eta 2014 urteen artean burututako lana jasotzen du, El Salvadorreko Inbertsio eta Merkataritzari buruzko Ikerketa Zentroarekin (CEICOM), Kolonbiako Cactus korporazioarekin eta Boliviako Dokumentazio eta Informazio Zentroarekin batera (CEDIB) –elkartasun – eta ikerlan-loturak direla medio–, OMALek koordinatu dituen lau ikerketa oinarritzat hartuta.

Ikerketak bibliografiaren berrikuspena, bai iturri akademikoetatik bai iturri instituzionaletatik jasotako informazio estatistikoa, lekuan bertan burututako bisitak eta elkarrizketak barne hartzen ditu aldi berean. Ildo horretan, herrialde bakoitzean landa-lanak antolatu ziren ikertutako enpresen proiektu eta jarduerak kokatzen diren gunetan. El Salvadorren, San Salvadorrez gain, El Chaparraleko zentral hidroeletrikoaren eraginpeko zonaldea bisitatu zen, San Miguel departamenduan, Hondurasko mugatik gertu. Horrez gain, elkarrizketak egin ziren Santa Ana departamenduan, Cerro Blanco meatzetik hurbilen dagoen horretan. Kolonbiari dagokionez, informazioa Bogotan eta Cundinamarca departamenduan jaso zen, hor baitago finkatuta loreen industria gehiena. Azkenik, Bolivian, Santa Cruz departamenduan eta PNAMI Aguaragüe kokatuta dagoen Tarija departamenduan egin ziren elkarrizketak.

### **Latinoamerikako hiru herrialdetan izandako inpaktuen ezaugarriak**

Ikerketen emaitzak, kontsulta errazteko helburuarekin logika berbera jarraitzen duten txosten desberdinetan jaso dira: sektorearen, lurraldearen eta biztanleriaren testuingurua deskribatzen da, eta ondoren inpaktuen deskribapenean eta azterketan oinarritutako ikerketaren enbor nagusia garatzen da. Aurretik zegoen informazioa eta egindako elkarrizketak oinarritzat hartuta, ikerketa bakoitzak alderdi batean edo bestean gehiago sakondu izana ekarri dute.

- 9. OMAL txostenak, “Energia elektrikoaren negozioa Erdialdeko Amerikan eta El Salvadorren. El Chaparralen kasua”, alderdi politikoa nabarmentzen du.
- 10. OMAL txostenak, “Meatzaritza transnazonala Erdialdeko Amerikan. Cerro Blancoren kasua”, ingurumenaren dimentsioa aztertzen du zehatzago.
- 11. OMAL txostenak, “Emakumeak loreen industrian”, alderdi soziala hartzen du ardatz gisa.
- 12. OMAL txostenak, “Erauzketa-industrien mugak Bolivian. Aguaragüeko biodibertsitatearen kasua”, ekarpen handiagoa egiten du ingurumen – eta kultura-arloetan.

Txostenak prestatu ondoren, oso baliagarritzat jo zen ikerketa bakoitzaren emaitza nagusiak biltzen zituen laburpen bat egitea, analisi erkatua ahalbideratzeko. Horrez gain, beharrezkotzat jo zen elementu hauek barne hartzea: erabilitako marko teorikoa, ikuspegiaren justifikazioa, kasuak, eta ikerketa burutu izan den herrialdeak. Esku artean duzun argitalpena ondoko taularen bidez laburbildu daiteke:





Kasu-azterketak, sektore, herrialde eta enpresen arabera								
Arazoak	Sektoreak	Herrialdeak	Enpresak	Dimentsioak				
				Eko.	Pol.	Giz.	Ing.	Kul.
Cerro Blanco	Meatzaritza	El Salvador Guatemala	- Goldcorp	X	X	X	X	
El Chaparral	Elektrizitatea	El Salvador	- Montgomery Watson and Harza - J-Power - Intertechne - Astaldi	X	X	X	X	
Lore-hazkuntza	Agroindustria	Kolonbia	- Chía taldea - The Elite Flower - Sunshine Bouquet - Flores Ipanema	X	X	X	X	
Aguaragüe	Hidrokarburoak	Bolivia	- Eastern Petroleum & Gas - Petrobras - YPFB - Petroandina - Técnicas Reunidas - Repsol				X	X

Dimentsioak abiaburutzat hartuta, inaktuak sistematizatu ziren, aurkezpen honetan finkatutako markoa jarraituz. Kasu guztiak berrikusita, nabaria da korporazioen eta atzerriko inbertsioaren ondorioak errepikatzen direla, lurraldearen berezitasunak eta enpresa-jardueraren sektorea gorabehera. Esate baterako, alderdi ekonomikoan, ekoizpen-ehuna suntsitzen da, lur-jabetzaren pilaketa eta nekazaritza eta arrantzarako baliabideen kutsadura direla medio –Cerro Blanco–, tokiko bizibideak desagertzen direlako, batez ere nekazaritzakoak –El Chaparral–, eta Kolonbian lore-hazkuntzan aritzen diren udalerriek mendekotasun ekonomiko handiegia dutelako. Era berean, alderdi politikoa aipa liteke. Hala, El Salvadorren eta Kolonbian, demokrazia-urritasuna egoteari lotuta, hurrengoak egiazta daitezke: informazioa ezkutatzea, kontsulta-eskubidearen ez-betetzea, irregulartasunak administrazio izapideak egitean, eta esfera politikoarekiko harreman abantailatsuen existentzia.

Tokiko enpresen eta transnazionalen jardueren dimentsio eta inpaktuak kasu-azterketetan			
Arazoak	Herrialdeak	Dimentsioak	Eraginak
Cerro Blanco	El Salvador Guatemala	Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehunaren suntsipena.
			Zerga-ordainketen saihestea eta delitu ekonomikoak.
		Politikoa	Demokrazia-urritasuna.
			Kriminalizazioa eta errepresioa.
Soziala	Lan-baldintzen hondamena.		
Ingurumenekoa	Airea, lurra eta ura kutsatzea.		
	Lurraldearen suntsipena.		
El Chaparral	El Salvador	Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehunaren suntsipena.
			Delitu ekonomikoak.
		Politikoa	Demokrazia-urritasuna eta <i>lobby</i> :
			<i>Lex mercatoria</i> eta subiranotasuna galtzea.
Soziala	Kriminalizazioa eta errepresioa.		
	Zerbitzu publiko eskurazinak.		
Ingurumenekoa	Emakumeen eskubideak.		
	Ura kutsatzea eta biodibertsitatea galtzea.		
Lore-hazkuntza	Kolonbia	Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehunaren suntsipena.
			Delitu ekonomikoak (iruzurra).
		Politikoa	Demokrazia-urritasuna eta <i>lobby</i> .
			Lan-baldintzak eta eskubide sindikalak.
Soziala	Genero-desberdintasunak.		
	Ingurumenekoa	Airea, ura eta lurra kutsatzea.	
Aguaragüe	Bolivia	Ingurumenekoa	Biodibertsitatea galtzea.
			Lurraldearen suntsipena.
		Kulturala	Herri indigenen eskubideak.

Azken batean, aurkeztutako ikerketak enpresa multinazionalen jarduteko eraren adibide paradigmaticoa dira, eta eragiten dituzten inpaktuen izaera sistematikoa erakusten dute. Ekainaren 23an Herrien Auzitegi Iraunkorrek transnazionaleri legez eskatu beharreko arau lotesleei buruz Genevan egindako azken adierazpenean dioenez, korporazio handien inpaktuak “zigorgabetasunaren arkitekturaren” adierazpena dira. Arkitektura hori eraiki ahal izan da, politika neoliberalak gero eta botere ekonomiko, politiko, juridiko eta kultural gehiago ematen dietelako. Horren aurrez aurre, erakunde sozialak, ingurumenekoak, sindikatuak, ikastetxeak, akademia, eta beste batzuk egunero aritzen dira borrokan, oinarrizko eskubideak aldeztuko eta hautabideak eraikitzeko, justizia sozialari lehentasuna emango dioten eta egungo krisialdi ekologikoarekin amaituko duten garapen-ereduetarantz jotzeko.



## **Esker onak**

Lan hau ez litzateke posible izango Inbertsio eta Merkataritzari buruzko Ikerketa Zentroaren (CEICOM), Boliviako Dokumentazio eta Informazioko Zentroaren (CEDIB) eta Cactus korporazioaren ardura eta ahaleginik gabe. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketan parte hartu eta laguntza eman duten erakunde sozial eta pertsona guztiei, beren lankidetzaz eta konfiantzagatik. Lan hau haien borrokek ezagutzera emateko eta indartzeko lagungarria izatea nahi dugu, joan-etorrikoa den elkartasuneko harremana izanda. Horrez gain, eskerrak eman nahi dizkiegu Bakea eta Duintasunarekin elkarlanean eta lankidetzan aritzen diren lagunei, ezinbesteko laguntza eman baitigute ikerketa-proiektua behar bezala bukatu ahal izateko. Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta batez ere Lan Harremanetarako Unibertsitate Eskolak gurekin izan duten konfiantza eta laguntza eskertu behar ditugu, Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia-OMALEk lankidetzako hitzarmena sinatuta baitu haiekin 2008. urtetik.

## **Ohar bibliografikoa**

Txosten bakoitzean jasota dagoenez, informazioak iturri bibliografikoak, datu-base instituzionalak eta akademikoak, eta elkarrizketak hartu ditu oinarritzat. Hala ere, argitalpen honetan ez dira erreferentzia guztiak agertzen, erredundantziak saihesteko eta alderdirik garrantzitsuenak nabarmentzeko. Hori gorabehera, ez da informaziorik galdu, ikerketen bertsio osoa txostentan jasota baitago, eta txosten horiek OMALen web-orrian baitaude eskuragarri ([omal.info](http://omal.info)).





## **El Salvador**

Meatzaritza transnazonala  
Erdialdeko Amerikan:  
Cerro Blancoren kasua





**Tokia:** Santa Ana (El Salvador) eta Jutiapa (Guatemala) departamenduak.

**Sektore ekonomikoa:** meatzaritza metalikoa.


**Enpresa:** Goldcorp (Kanada).

**Eraginak:** ekonomikoak, politikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

Dimentsioak	Eraginak	Deskribapena
Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehuna suntsitzea.	Lur-jabetzaren pilaketa eta nekazaritza eta arrantzarako baliabideak kutsatzea.
	Zerga-ordainketen saihestea.	Zerga-beherapenak "komunitateetan inbertsio soziala egiteagatik".
Politikoa	Demokrazia-urritasuna.	Informazioa ezkutatzea, kontsulta-eskubidea ez betetzea, irregulartasunak IEA (ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa) izapidetzean.
	Kriminalizazioa eta errepresioa.	Bahiketak, lapurreak.
Soziala	Lan-baldintzak hondatzea.	Segurtasun-araudia ez betetzea, soldatak ez ordaintzea eta lan-istripuak azpikontratetan.
Ingurumenekoa	Airea, lurra eta ura kutsatzea.	Ur termalak eta metal astunak isurtzea, adibidez, artsenikoa.
	Lurraldea suntsitzea.	Lurpeko uren gehiegizko ustiapena.

## 1. Sarrera

Cerro Blanco, Goldcorp transnazional kanadarraren filiala den Guatemalako Entre Mares enpresak bultzatutako urrea eta zilarra ateratzeko proiektua da. Asunción Mitako udalerrian dago, Jutiapako departamendu guatemalarrean, 153 km-ra ekialderantz Guatemala Hiritik. El Salvadorreko mugatik 15km-tara, eta Santa Anako departamendu salvadortarreko buru den Metapán hiritik beste 3 km gehiagotara dago kokatuta. Meatzea Chingo, Santiago, Suchitán, Ixtepeque eta Ipala sumendiak dauden sumendi-gune batetan dago finkatuta. Gainera, ur geotermal ugari dago alde horretan, zenbait iturriren bidez modu naturalean azaleratzen dena.



Fuente: Elaboración propia a partir de Comisión Trinacional del Plan Trifinio (2009).

Goldcorpek kostu baxuzko urrea ekoizten duen enpresa gisa definitzen du bere burua. Hori lortzeko, etekinak maximizatzeko aukera ematen dioten gizarte – eta ingurumen-baldintzak dituzten herrialdeetan burutzen ditu eragiketak. Gainera, Goldcorpek lortzen duen errentagarritasunak lotura estua du proiektuen kokalekuetako biztanleen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez dituen eragiketa-eredu jakin batekin, horren ondorioz Latinoamerikan hainbat aldiz salatua izan delarik.

Cerro Blanco, urrea eta zilarra harkaitzetik bereizteko zianuro bitartezko lixibiazio-prozesua erabiltzen duen lur-azpiko meatzea da. Kalkuluen arabera, 1,5 milioi ontza urre eta 4,5 milioi ontza zilar ekoitziko dituzte.

Enpresaren esanetan, urrearen prezioaren jaitsiera izan da ekoizpenean izandako geldialdiaren arrazoia. Alabaina, Inbertsio eta Merkataritzari buruzko Ikerketa Zentroak (CEICOMek) eta Guatemalako Madreselva elkarteak ohartarazi dutenez, Goldcorp ez da meatzean dauden arazo teknikoak kudeatzeko gauza. Horrenbestez, agerian geratu dira Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketak (IEA) eta proiektuaren diseinuak berak dituzten akatsak, hainbat adituk aditzera emandakoak.





## Cerro Blanco meatzearen jardueraren kronologia

- 2007** Guatemalako Ingurumen eta Baliabide Naturalen Ministerioak Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketari eman zion oniritzia, eta Energia eta Meatzetako Ministerioak (MEMek) ustiapen-baimena eman zuen.
- 2009 - 2010** Entre Mares enpresak ur termalak ateratzeari ekin zion, gero urrea eta zilarra ateratzeko.
- 2011 - 2013** Ur termalen bolumen handiak erauzketa-jarduera galarazten du.
- 2013** Jarduera bertan behera utzi, eta proiektua geldiarazten da.

## 2. Eragin nagusiak

Proiektua geldiarazi arren, Entre Mares enpresak ordura arte egindako jarduerak jada ondorioak izan dituzte guatemalar eta salvadortar lurraldeetan. Kaltetutako erkidegoak El Tule, Trapiche Vargas, Cerro Blanco, San Rafael Cerro Blanco, El Cerrón, Las Ánimas eta Vieja Anguiatú izan dira, denak Guatemalakoak, Güijako aintziraren inguruko erkidegoez gain, Guatemalakoak zein El Salvadorrekoak. Bestetik, proiektuak El Salvadorren piztutako alarmaren arrazoi nagusia inpaktuek izango duten mugaz gaindiko izaeran datza, batez ere, ingurumenaren gainekoek. Izan ere, meatzeak sortutako kutsadurak El Salvadorrek Guatemalako Errepublikarekin partekatzen dituen urak zikinduko ditu. Cerro Blanco meatzea Lempa ibaiaren goi arroan dago kokatuta. Hortaz, zonalde horretan eragindako inpaktuak ibaiaren erdi eta behe arroak ukituko ditu. Kontuan izan behar da ibai hori El Salvadorreko ur sistemaren bizkarrezurra dela, El Salvadorreko biztanleak ibai horren eta bere arrotik dabilen uraren mende baitaude: estatu osoko ur-baliabide guztien % 68 biltzen du, hain zuzen, etxe eta industrietan erabiltzeko uraren % 85, eta nekazaritzan erabiltzen den uraren % 48. Azken batean, ibaia funtsezkoa da herrialde osoa edateko urez hornitzeko. Hortaz, ibaiaren kontserbazio egokia eta kalitatea ardatz estrategikoak dira El Salvadorrentzat, eta bizirauteko elementu bat bertako biztanleentzat. Gainera, inpaktuen mugaz gaindiko izaera areago larritzeko, gabezia juridiko nabarmenak daude nazioarteko mailan: lehenik, ez dago protokolorik nazio anitzeko arroak kudeatzeko, eta, bigarrenik, ez dago mugaz gaindiko meatzaritza arautzeko legeriarik.

Goldcorp enpresak jarduerari berriz ekin, eta Cerro Blanco ustiatzen badu, horren ondorioak oso larriak izango dira Guatemalako eta El Salvadorreko biztanleentzat. Hortaz, Guatemalako erakundeek eta El Salvadorreko Meatzaritza Metalikoaren aurkako Mahai Nazionalak ohartarazi dutenez, proiektua behin betiko geldiarazi behar da ezinbestez.

## 2.1. Dimentsio ekonomikoa

### 2.1.1. Bertako ekoizpen-ehuna suntsitzea

Nekazaritza eta arrantza, Asunción Mita inguruko jarduera nagusiak, meatzearen eragina jasotzen ari dira. Azken urteetan enpresak jatorriz nekazaritzara zuzendutako lurrak eskuratu ditu, lehendik nekazariei iraupeneko laborantzetarako errentan emandakoak. Lur-pilaketa hau oinarrizko aleen –arto, sorgo eta babarrunen– eta erkidegoak elikatzea zuzendutako beste produktu batzuen ekoizpena baztertzeko ari da. Bestetik, Entre Mares enpresak tokiko merkatu-balioaren gaineko diru-kopuruak ordaindu ditu eskuratu dituen finken truke, aldameneko lursailen prezioen igoera eraginez, bertako biztanle txirotuentzat eskuraezin bilakatuz. Azken batean, zonaldearen elikadura-burujabetzarekiko egoera ez-egonkorra areago larritu da.

Güijako aintziratik gertuko gune salvadortarrean ere ekoizpen-ehunaren gaineko kalteak egiaztatzen ari dira. Ingurumen mehatxuak direla eta, Metapán eta San Antonio Pajonaleko (El Salvador) udalerrietako arrantza-komunitateek gero eta zailtasun gehiago dituzte harri-patutako arraina saltzeko. Arriskuan jartzen ari da, sarritan, biztanle horiek duten diru-iturri bakarra. Nekazaritzan aritzen diren biztanleen artean ere kezka daude, urak ertzetik atzera egiterakoan aintziran estali gabe geratzen den lur-eremuan landatzen baitituzte laboreak, eta Ostúa ibaiko ura erabiltzen baitute ureztatzeko.

El Salvadorren kasuan, gainera, nazio lurraldearen zati handi batetan zehar zabaltzen da arazo, Lempa ibaiaren bitartez. Meatzaritza-jarduerak sortutako kutsadura barreiatzerakoan, ibaiaren ibilera osoa ukitua izango litzateke, eta, beraz, nekazaritza, arrantza eta beste jarduerak ekonomiko batzuk kaltetuko litzuzke ibaiaren behealdean.

### 2.1.2. Zerga-ordainketen saihestea

Meatzaritza-industrien zerga-ekarpina izugarri proportzios kanpokoak da lortzen dituzten diru-sarrerekin alderatuz. Guatemalako Meatzaritza Legeak meatze-enpresak berak aitortu eta tipifikatutako metalen gaineko % 0,5eko erregaliak ezartzen ditu udalentsat, eta beste % 0,5 estatuarentzat, eta inportazio-zergak ezabatzen ditu. Baldintza horiek onuragarriak dira berez, baina, gainera, Entre Mares enpresak zerga-beherapenak jaso ditu, “komunitateetan inbertsio soziala” burutzeagatik, CRISDENAKO Octavio Gasparico Asabáren esanetan. Inbertsio horren bidez, Erantzukizun Sozial Korporatiboko proiektuak exekutatu dituzte Asunción Mitán, esate baterako, bideak eta kaleak hobetu eta zolatzea, eskolan hobetze-lanak egitea, osasun-etxe batzuk sortzea eta ur-putzu batzuk eskuz egitea –komunitateen esanetan, lehortu egin direnak handik gutxira–. Horrez gain, enpresak Ingurumena Kontrolatzeko eta Babesteko Elkarteak (AMAR) sortu du, korporazioaren irudia garbitu nahian, eta Goldcorp enpresaren kontra dauden komunitateak zatikatzeko asmoz.

Hortaz, enpresak izugarritzko etekinak irabazteko itxaropena du. Urreak (1.228 dolar/ontza) eta zilarrak (19,5 dolar/ontza) orain duten prezioak bere horretan jarraituz gero, Goldcorp enpresak ikaragarritzko diru-sarrerak lortuko ditu Cerro Blancón. Robinsonek egindako kalkuluen arabera (2012), kostu guztiak bere gain hartu ondoren, enpresak 2.000 milioi dolar inguru irabaziko ditu.



## 2.2. Dimentsio politikoa

### 2.2.1. Demokrazia-urritasuna (I): informazioa ezkutatzea eta kontsulta-eskubidea ez betetzea

Opakutasuna izan da Cerro Blanco proiektuaren ezaugarri politiko nagusia, komunitateek behin sinatuta eta onartuta zegoenean ezagutu baitzuten. Izan ere, enpresak biztanleria jakinaren gainean jarri behar izan zuen proiektuak nola-halako kezka sortzen hasi zenean eta erakunde guatemalarrak eta salvadortarrek meatzari buruz modu kritikoa mintzatu eta erakunde publikoei presioa egiten hasi zirenean. Orduan, Entre Mares enpresak hainbat bilera antolatu zituen komunitateekin, Cerro Blancok udalerrinari ekarriko lizkiokeen onurei buruzko publizitatea egiteko. Hala ere, jendearen parte-hartzea urria izan zen, eta enpresak informazioa manipulatu zuen, ustiapenak ekar zitzakeen ingurumen – eta gizarte-arriskuei buruzko argibiderik ez baitzuen eman.

Bestetik, Guatemalako Udal Kodeak herritarrei –indigenak izan zein ez izan– honelako proiektu bati buruzko kontsulta egiteko legezko oinarriak finkatzen ditu, eta Asunción Mitako udalerriko agintariek ez dute eskubide hori errespetatu, enpresarekin lerrokatutako jarrera mantentzen dute eta. Ildo horretan, Madreselva erakundeko Julio Ernesto González Cuellarek dioenez, udal-alkatetzak eraikitzeke baimenak eta lizentziak eman zituen, “meatzeak mesede ekonomikoa egin ondoren”.

### 2.2.2. Demokrazia-urritasuna (II): irregulartasunak IEAren onarpenean

El Salvadorreko Giza Eskubideak Babesteko Prokuradoretzari jarraiki, Cerro Blancoko proiektua irregulartasun larrien artean onartu da. Horietako batzuek ingurumen-baimena izapidetzeko prozesuarekin dute zerikusia. Guatemalako *Plaza Pública* hedabide digitalaren arabera, Ingurumen eta Natura Baliabideen Ministerioako (MARNe) langile aldaketa batek, 2005ean atzera botatako ingurumenaren gaineko eraginaren azterketarekin alderatuz “erabat berdina” zen IEA bat 2007an onartzea ahalbidetu zuen. Orduetik aurrera, Ministerioak hasierako 14 azterketa onetsi zituen zatika, Cerro Blancoko meatze-ustiapen eta esplotazio geotermikoaren hainbat alderdiri zegozkienak. Banan-banan aztertu zuen haietako bakoitza, “ingurumenaren gainean gutxieneko eragina sortzeko moduko jarduerak balira bezala”.

### 2.2.3. Kriminalizazioa eta errepresioa

Cerro Blancoren aldameneko jendeguneetan oraingo ez dira iritsi meatzaritzari aurre egin dioten Guatemalako eta El Salvadorreko beste erkidego batzuetan bizi den indarkeria-mailara. Hala ere, 2010. urtean bi aldiz atxilotu zituzten CEICOM zentroko kideak Guatemalan, ustiapenaren kontrako ekitaldietara zihoazela. Bi kasu horietan, armatutako gizonak geldiarazi zituzten, poliziaren kontrol-postu batetik gertu; eta bigarren aldian, gainera, polizia gisa aurkeztu zuten beren burua. Hainbat objektu kendu zizkieten bi kasuetan, besteak beste, ordenagailuak eta argazki-makinak. Meatzearen kontra garatzen zuten jarduera ez zen inoiz aipatu. El Salvadorreko erakundeak bahiketak salatu zituen, baina gertakariak ez dira sekula ikertu. Bestetik, CEICOM zentroak bere web orriaren eta bere helbide elektroniko batzuen kontrako zenbait erasoren bitartez burututako zenbait dokumenturen lapurreta salatu du, erasoak Guatemalako errepublikan sorburua izango lukeelarik.

## 2.3. Dimentsio soziala

Goldcorp enpresak zabalduko propaganda-kanpainan, meatzean lanpostu ugari sortuko zituela agindu zuen, eta ustiapen-garaia hasterakoan bertako langile-talde bat sortu zen –gehienak gizonetakoak–, non enplegua agindu zitzaizen 15 urtez, gaikuntza gutxieneko eta ordain baxueneko postuak bete zituztelarik. Hala ere, enpresak langile talde horren parte ziren 100 lagun baino gehiago bota ditu kalera, eta gaur egun, instalazioen zaintzaz eta segurtasunaz arduratzen diren langile gutxi batzuk baino ez dira geratzen.

### 2.3.1. Lan-baldintzak hondatzea: segurtasun-arauak ez betetzea

2010ean Guatemalako Giza Eskubideen Prokuradoretzako (PDHko) Langilearen Defendatzaileak Entre Mares enpresak bere langileen eskubideak urratzen zituela adierazi zuen. Bere txostenak zioenez, segurtasun-baldintzek ez zuten legeak eskatutakoa betetzen. Era berean, Larios doktoreak adierazi zuenez, enpresak ez ikusiarena egiten ziren zonalde hartako faktore geotermiko garrantzitsuei, adibidez, gas geotermalen eta radon-maila altuen presentzia, langileen segurtasuna arrisku larrian jartzen zutenak.

Langilearen defendatzaileak ikuskaritza egin ondoren idatzi zuen txostenari jarraiki, meatzeko tuneletan lan egitea oso arriskutsua da, alde batetik, sarreran tenperatura alturak antzematen direlako, eta, bestetik, meatze barruan aritu bitartean langileak iluntasunean eta isolatuta egon behar direlako. Horrez gain, langileen ordutegiak ez ziren zorrotzaz kontrolatzen, eta ondorioz, ezta muturreko baldintza horietan ematen zituzten ordu kopurua ere. Azkenik, Entre Mares enpresak ez zuen klinikarik, ez medikurik meatze inguruan.

### 2.3.2. Lan-eskubideak urratzea

Hainbat kasutan Entre Maresek azpikontrataturako enpresa batek ez zien langileei ordaindu. Horrez gain, lan-istripu larri bat izan zen, enpresak arduragabekeriak jokatu zuelarik: Feliciano Orellanak “lesio larriak izan zituen eta elbarri geratu zen”, “balazta egokirik ezta alarmerik ere ez zeukan” traktore batek meatze barruan zanpatu ondoren. Horrela, agerian geratzen dira azpikontratek sustatzen zituzten lan-baldintza negargarriak. Felicianok 2.200 ketzaleko soldata zuen hilean –280 euro inguru–, 12 ordu ematen zituen lanean egunero, 20 lanegun eta 10 atsedeen-egun izanda. Istripua izan zenean, enpresak ez zion gizarte-segurantzarik ordaintzen, eta ez zuen istripua bere gain hartu, ezta osasun-gastuak ere.

Gainera, Defendatzaileak egindako ikuskaritzak egiaztatu zuenez, enpresak elkarte parasindikala bat sortu zuen, beren eskubide eta interesak defendatzeko langileen antolakuntza geldiarazteko asmoz.

## 2.4. Ingurumeneko dimentsioa

Cerro Blanco Trifinio eskualdearen barrualdean kokatzen da. 7.541 km<sup>2</sup> inguruko mugaldekoko gune honetan, El Salvador, Guatemala eta Hondurasko lurraldeak bateratzen dira. “Unitate ekologiko zatietan” gisa sailkatuta dago, eta izaera estrategikoa du, batez ere baso eta hidrologia aldetik. Garrantzi handiko akuiferoak eta bi arro binazional barneratzen ditu (Motagua eta Lempa



ibaietako arroak), funtsezko sistemak biak ingurumen-, giza – eta ekoizpen-ikuspuntuetatik. Hala ere, zonaldeak hondamendi maila altua pairatzen du.

Erauzketa-industrien inpakturik nabarmen eta gogorrenetako batzuk ingurumenaren eta izaikien –pertsonak barne– osasunaren gainean eragindako horiek dira. Lurraldearen suntsipena eta ingurunearen –bereziki uraren– kutsadura dira meatze-proiektu ororen ondorio erkidea.



Fuente: “Mina Cerro Blanco genera disputa entre Guatemala y El Salvador”, Prensa Libre, 9 de febrero de 2013.

#### 2.4.1. Airea, lurra eta ura kutsatzea

##### Kutsadura termikoa

Zonaldean tenperatura altuen pean aurkitzen diren lur-azpiko ur-kopuru erraldoiak erauziz eman zion hasiera bere jarduerari Entre Mares enpresak, urre eta zilarraren erauzketa bide-argarria bilatzeko asmoarekin. Baina ur termal bolumen izugarri handia drainatu beharra zegoen, eta, ondorioz, erauzte-lanei hasiera ematea ezinezko bilakatu zen enpresarentzat. Irekitako kanaletatik kontrolik gabeko ur-bolumen handia ateratzeak kanalak husteko beharra sortzen du hauek urpetu ez daitezen, Goldcorp izugarrizko ur-bolumen hori kudeatzeko gauza ez delarik CEICOM zentroaren arabera. Hilabete batzuetatik hona sekulako ur-kopuruak ateratzen ari dira tuneletik, egunean 24 ordu, oso tenperatura altuetara. Meatzeko langile batzuen esanetan, ura 130 gradutara iristen da azalera, beraz, seguruenik Ostúa ibaiaren kutsadura termikoa jada garapenean dagoen errealitate bat da. Tenperatura igotzerakoan uretan nahastutako oxigenoaren murrizketak biodibertsitatea gutxitzea, espezien ugaltze-zikloak eraldatzea, eta kutsatzaileen eragina ur-organismoetan biziagotzea eragiten du.

## Metal astunak

Drainatutako uraren inguruko beste arazoetako bat artseniko ugari izatean datza. Metal astuna da artsenikoa, eta ezohiko maila altuetan kontzentratuta agertzen da zonalde osoko azaleko nahiz lurpeko uretan. Arsenikoarekin batera, boro – eta fluor-kontzentrazio maila altuak ere aurkitzen dira zonaldean. Entre Mares enpresak hurrengo adierazten du: ura hozteko eta Ostúa ibaira bideratu aurretik artseniko-kontzentrazioa gutxitzeko erabiltzen duen tratamenduaren bitartez ura “garbi geratzen da, hondakin-urak jasotzen dituen ibaira doana baino garbiago”. Hala ere, Jorge Grijalva bezalako egileek ohartarazi dutenez, artsenikoa Guatemalako Ingurumen eta Natura Baliabideen Ministerioak (MARNEk) finkatutako gehiengo kontzentrazio-mailaraino gutxitzeko enpresa-protokoloetan gabezia larriak daude.

Bestetik, harri antzuen hondarrak eta kolak kudeatzeko aurreikusitako plangintzak ez dira egokiak izan, ezta behar adinakoak ere. Adituen ustez, metal horiek biltegitratzeko plangintzetan jaso diren egituretan ura iragazteko arriskua dago, eta horrek arazo larria sor lezake epe luzera, hain zuzen, drainatze azidoa –oso toxikoak diren metal astunak uretan disolbatzea–, hau da, “eragin suntsitzaileak ur-bizitzaren eta, oro har, ur-ekosistemen gainean”. Meatzearen inguruan agertzen diren zenbait osagai toxiko –adibidez, aluminioa, kobrea, kadmioa, artsenikoa, beruna eta merkurioa– arriskutsuak izan daitezke, uretan disolbatu eta azaleko zein lur-azpiko urek distantzia luzetara bideratuz gero, Ostúa ibaiatz gain, Güijako aintzira eta Lempa ibaia ere larriki kaltetuko bailituzkete. Argibideak eman dizkiguten erakundearen ustez, drainatze azidoa izango da meatzeak ingurumenean sortuko duen inpakturik handiena, batez ere 15 edo 20 urteko epean, hau da, enpresak proiektuari amaiera eman eta bertatik alde egin ondoren.

Meatzearen itxiera da, hain zuen, adituen kezka eta kritika pizten duen IEAren beste puntu-etako bat. Robinsonen ustez, bi urteko itxialdian eta beste bi urteko uraren kalitate-kontrol, hobekuntza, konponketa edo aldaketak gauzatzean oinarritutako plana erabat eskasa dela bistan dago. Grijalvaren iritziz, baldintzarik onenetan ere, bi urteko epea ez da inola ere behar bestekoa Cerro Blancok duen tamaina duen meatze baten itxiera teknikorako, eta, gainera, kontuan izan behar da eremu geotermiko batean kokatuta dagoela. Robinsonek egindako txostenaren arabera, proiektuak dituen arriskuak eta baldintzak kontuan izanda, kontrola egiteko ohiko epea 15 eta 25 urte artekoa izan beharko litzateke. Gainera, aditu biek enpresak fidantza bat jarri behar duela adierazi dute, ezinbesteko itxiera teknikoa egin gabe proiektua bertan behera uzteko posibilitatearen aurreko berme gisa.

## Giza-osasuna

Epe luzera aurreikusitako ondorio larriak alde batera utzita, komunitateak jadanik inpaktu zehatz batzuk salatzen ari dira, hain zuzen, ingurumenaren gaineko zenbait eragin eta giza-osasunarekiko arriskuak. Ostúa ibaitik eta Güijako aintziratik gertu dauden komunitate guatemalarrak eta salvadortar guztiak ur horiek erabiltzen dituzte laboreak ureztatzeko, arrantzatzeko, garbitzeko, janaria prestatzeko, bainua hartzeko, aisialdian erabiltzeko eta, askok, edateko baita ere. Horren ondorioz, kezka piztu da, batez ere, etxeko lanez arduratzen diren emakumeengan:

“Hemen, La Portadan, ibaian garbitzen dugu, bainua hartzen dugu, haurrak dira gehien gozaten dutenak, uretan sartzen dira. Guk ez dugu urik hartzen edateko; alkateak *pipa* bat [hodi bat] bidaltzen digu urarekin. Laboreak ureztatzeko erabiltzen



dugu ura. Nik uste dut kaltea eragin lezakeela, hainbeste gai kimiko izanda. Izan ere, artoaren uztak ez du lehen bezalako errendimendua. Ez dago ekoizpen handirik. Arto gehiena guk geuk kontsumitzeko landatzen dugu”.

“Oso gutxik hartzen dugu edateko ona den ura. Jende gehienak aintziratik hartzen du ura. Edaten dute, janaria prestatzen dute...”

Metapáneko (El Salvador) La Portada komunitateko Ostúa Ibaia Ingurumen Batzordeak, CEICOM zentroaren laguntzarekin, ibaiko uraren kalitatea neurtzeko kontrolak egiten ditu: “Giroaren tenperatura neurtzen dugu, eta urarena. Eta pHa, baita kare-maila ere. Eta eduki beharko lukeen pH maila gainditu egiten duela atzeman dugu. Meatzearen ondorioa dela pentsatzen dugu. Arrain-espezie asko ibaitik desagertu dira.” Ingurumen Batzordeak Entre Mares enpresak sortu duen hondamena salatzen du, eta, era berean, enpresako langile batzuek aditzera eman dute gai kimikoak isuri direla meatze barruan, baina ezezaguna da isurketa hori norainokoa izan den. Oraingoz, gerta liteke orain arte bestelako jarduerak eragindako kutsaduraren kaltea hartu duten Ostúa ibai ondoko komunitateak ingurumena hondatzen duen beste gune baten eraginpean geratzea hemendik aurrera: meatzearen mende.

Cerro Blancoko IEAk ez du osasun publikoarekiko arriskuen analisirik aurreikusten, baina artseniko kontzentrazio-maila altua duen uraren isurketa Ostúa ibaira doazen erreketara, jada inpaktuak eragiten egon liteke. Julio Ernesto González Cuellarek MadreSelva erakundearentzat (2013) hidroartsenizismoari buruz egin duen aurretiazko azterketari jarraiki, meatzeko proiektutik hurbil dauden komunitateetako biztanleen artean agertzen diren artseniko-mailak kezkatzeko modukoak dira, eta, beraz, prebentzio-neurriak hartu beharko lirateke. Gainera, kontuan izan behar da kaltetutako biztanle askorengan pobrezia lotutako desnutrizio-maila altua agertzen dela, eta, beraz, biztanle horiek ahulenak direla hidroartsenizismoaren aurrean.

Hidroarsenicismo kronikoaren klinika		
Ondorio ez kantzerigenoak	Ondorio aurre-kantzerigenoak	Ondorio kantzerigenoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Gastrointestinalak</li> <li>✓ Kardiobaskularrak</li> <li>✓ Giltzurrunetakoak</li> <li>✓ Gibeleskoak</li> <li>✓ Biriketakoak</li> <li>✓ Hematologikoak</li> <li>✓ Endokrinologikoak</li> <li>✓ Immunologikoak</li> <li>✓ Neurologikoak</li> <li>✓ Ugalketakoak eta garapenekoak</li> <li>✓ Gaixotasun baskular periferikoa</li> <li>✓ Gaixotasun garun-baskularra</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Hiperkeratosia</li> <li>✓ Hiperpigmentazioa (melanosia)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ezkatadun zelulen azal-kartzinoma</li> <li>✓ Kartzinoma basozelularra</li> <li>✓ Artsenikoak hestegorri-, urdail-, heste mehar-, kolon-, sudur-, laringe-, hezur- eta prostata-minbiziarekin lotura izan zenezakeela aditzera eman da; linfoma eta leuzemia, gibel (angiosarkoma) eta prostata.</li> </ul>

Iturria: González Cuellar (2013).



### 2.4.2. Lurraldea suntsitzea

Urrearen erauzpenerako ur-kopuru handiak erabili behar dira, alde batetik minerala prozesatzeko eta, bestetik, makineria hoztu eta bestelako jarduerak egiteko. Cerro Blanco meatzeari dagokionez, aurreikuspenen arabera, 20,8 milioi litro ur behar ziren egunean. Guatemalako legeari jarraiki, enpresak askatasun osoa izango du ur hori hartzeko, mugarik gabe eta ordaintzeko beharrik gabe. Hala ere, giza-kontsumorako egokia den ura urria den lekuetan, edota ur-krisialdi kronikoa pairatzen dutenetan, hala nola El Salvadorren, halako ur-kopuruak bereganatzea erabat onartezina da.

Gainera, MARNe onetsitako IEAren arabera, Entre Mares enpresak ura meatzetik ateratzeko ponpatu beharko lukeen ur geotermikoaren fluxua 47,5 litrokoa izan beharko luke segundoko, ura 70 °C-ra egonda, eta 237,5 litrokoa segundoko, berriz, ura 80 °C-tara egonda. Enpresak inpakturik izango ez dela aurreikusten badu ere, bere adierazpena erabat errealitatetik kanpo dago: “Meatzetik aterako litzatekeen ura eraginpeko eremu osoko ur-kargaren % 37,9 izango litzateke”. Izan ere, Cerro Blancotik hurbil dauden komunitateetan, errekurtsoren erauzpenari lotutako ondorioen berri eman dute: “Lehen, 3 metrotara aurkitzen zuten ura, baina orain 9 edo 25 metrotarainoko putzuak zulatu behar dituzte ura aurkitzeko, gero putzuak lehortzen zaizkielarik”.

Meatzetik gertu dauden ur termalen iturburu natural batzuk ere lehortu egin dira: “Meatzea izan aurretik, ur termalen hainbat iturburu zeuden meatzea jarri zen tokitik hurbil, hainbat lekutan. Lekurik hurbilena Cerro Blanco herrixkako bidean zegoen, gutxi gorabehera 1,5 kilometrora. Meatzetik ur termala ateratzen hasi ziren mementoan, lehortu egin zen”.

## 3. Cerro Blanco meatzearen kontrako erresistentzia

Cerro Blanco meatzeak El Salvadorreko lurraldean eragindako inpaktu eta mehatxuen ondorioz, Goldcorp enpresaren proiektuak aurkakoak ditu mugaz bi aldeetan, hala Guatemalan kaltetutako erakunde eta komunitateetan, nola El Salvadorreko gizarte – eta ingurumen-elkartean.

Meatzaritza Metalikoaren aurkako Mahai Nazionala da meatzeari aurre egiteko El Salvadorren mobilizatu den aktore nagusietako bat. 2005. urtean hasi zen jardunean, eta lotura estua du Pacific Rim enpresaren El Dorado proiektuaren aurkako borrokarekin. Meatzaritzatransnazionalak herrialdean finkatzearen eta Pacific Rim eta Commerce Group enpresek CIADIn jarritako auzien kontrako erresistentzia bultzatzen du. Horrez gain, inbertsioen legeri subirano bat, uraren defentsa eta meatzaritzarik gabeko herrialde bat ozen aldarrikatzen ditu. Mahaiak El Salvadorren Meatzaritza Metalikoa Debekatzeko Lege Berezia egiteko bi proposamen luzatu dizkio Legebiltzarrari, 2006. eta 2013. urteetan.

Cerro Blanco proiektuari dagokionez, eragin sozial eta politikoa bultzatzea da Mahaiaren estrategia nagusietako bat. Ildo horretan, Cerro Blancok dakarren mehatxuaren aurka mobilizatu eta kontrako iritzia publikoki azaldu duten sektore akademiko eta erakunde salvadortar batzuekin estuki ari da lanean, aliatu nagusienetako bat den Giza Eskubideen Prokuradoretza barne. Erakunde horrek 2013ko urtarrilean auziarekin zerikusia duten nazioarteko eta estatu





mailako tresna juridiko guztiak aztertzen dituen, eta El Salvadorreko gobernuari marko juridiko horren arabera jarduteko eta herritarren eskubideak bermatzeko duen zeregina betetzeko agindua luzatzen dion txosten bat argitaratu zuen.

Bestetik, El Salvadorreko herritarrei Cerro Blanco meatzeak dakarren arriskuari buruzko informazioa eman nahian, Mahaiak hainbat prentsaurreko egin ditu eta hedabide batzuetan azaldu da. Era horretan, El Salvadorreko iritzi publikoa mobilizatzea lortu du, gaur egun meatzearen kontrako jarrera agertzen duelarik. Toki-maila mugatuago batetan, CEICOM zentroak Radio Güija komunitate-irratia sortu zuen, Santa Anako departamenduan dagoen Metapáneko udalerriko komunitate batzuekin batera. Tresna horren bidez, herritarrei proiektuaren egoerari eta aurkako ekimenei buruzko informazioa eskaintzen zaie, baita komunitateen gaikuntza eta antolakuntza sustatu ere. Horrez gain, Cerro Blanco proiektuak ukitutako El Salvador eta Guatemalako komunitateen topaketak izan dira, mugaz gaindiko elkartasun-sareak ehuntzeko eta borroka politikoa partekatzeko. Mahaiak ez du arretarik gabe utzi El Salvadorreko mugetatik kanpoko elkartasuna, eta aliatuz osatutako El Salvadorreko meatzaritza metalikoaren kontrako nazioarteko talde baten inplikazioa lortu du.

Guatemala aldean, 2008tik aurrera, Eliza katolikoak funtsezko zeregina bete du Jutiapan, bertan kaltetutako komunitateek ez baitute ibilbide historikorik antolakuntza politikoaren esparruan. Goldcorp enpresaren Marlin meatzearen kontra mobilizatutako herritarrak, berriz, politikoki antolatuta daude, eta gainera batasun handiagoa lortu dute, beren nortasun maia dela eta. Jalapako elizbarrutiak eta bertako apezpikua den Julio Cabrerak funtsezko zeregina bete dute komunitateak antolatzeko prozesuan. Informazio kanpainak abiarazi dituzte komunitateetan, baita irakasleria, ikasle-talde eta komunitate-buruzagien artean ere. Asunción Mitako udalerrian, bertako parrokiako Fray Armando oinarrizko eragile bat izan da, eta, bertan, CRISDENAK, Asunción Mitako Komunitate Kristauen Elkarteak, eginkizun garrantzitsuak betetzen du, laguntza ematen baitie meatzetik hurbilen dauden komunitateei.

Estatuan, Fray Armandoren ordenari lotutako Justicia, Paz e Integridad con la Creación (JPIC) batzordeaz gain, Madreselva elkarte ekologista aipatu behar dugu, Guatemalan Cerro Blanco meatzearen kontra mobilizatutako erakunde nagusietako bat delako. Madreselvak hainbat ekintza burutu ditu proiektuaren inguruabarrak ikertzeko eta informazioa lortzeko, baita gaikuntza, informazio, eragin politiko eta mobilizazio, jarduerak martxan jarri ere, esate baterako, ibilaldiak antolatu ditu Asunción Mitako hirigunetik meatzearen instalazioetaraino.

### 3.1. Funtsezko unea Erdialdeko Amerikako meatzaritzaren aurkako borrokan

Meatzaritza metalikoaren aurkako borroka une gogor eta erabakigarri batean dago Guatemalan. Gobernuak erauzteko industria garatzearen alde egin du, eta mesede egin die meatzaritzako korporazio handiek dituzten interesei, konstituzioari jarraiki herritarren eskubideak bermatzeko estatuak duen eginkizuna bete aurretik. Meatzaritza-arloko transnazionalak jomugan dute herrialdea, “kostu baxuko” meatzaritzari esker etekin izugarriak eskuratuko dituztelakoan. Erantzun gisa, erakunde sozialak eta kaltetutako komunitateak etenik gabeko borrokan ari dira, arlo juridikoan, sozialean eta politikoan eta hedabideetan... Abian dauden proiektuei aurre egiteaz gain, litekeena da hurrengo urteetan 355 lizentziatik gora onestea

meatzeak ikertzeko eta ustiatzeko, eta, beraz, proiektu horiek ere lurraldea zulatu, urak eta lurrak kutsatu, herritarrak gaixoarazi eta haien bizimodua suntsi dezakete.


El Salvadorren, abagune estrategiko batean daude meatzeen aurkako borrokan, alde batetik, meatzaritzako jarduera aldi batez geldiarazi delako, eta, bestetik, Commerce Group eta Pacific Rim –orain Oceana Golden esku– transnazionalak arbitrajeko eztabaidak abiarazi dituztelako nazioarteko epaitegietan. Etorkizuna dago jokoan: aurrera egitea meatzaritza metalikorik gabeko herrialderantz, edo atzera egitea Guatemala eta Hondurasen dagoenaren antzeko egoera batera. Horregatik, Goldcorp enpresak Cerro Blancoko jarduerak geldiarazi eta hilabete batzuk igaro ondoren, Guatemala eta El Salvadorreko erakundeek erne jarraitzen dute. Lempa ibaiko goi arroan, meatzaritzaren mehatxuak bere horretan jarraitzen du. El Salvador eta Guatemalako mugimenduen eta eragileen ustez, ezinbestekoa da haien arteko batasuna lortzea aurre egiten jarraitzeko.



## **El Salvador**

Energia elektrikoaren negozioa  
Erdialdeko Amerikan:  
El Chaparralen kasua





**Lurraldea:** San Migueleko departamendua (El Salvador).

**Sektore ekonomikoa:** energia elektrikoaren sorkuntza.

**Enpresak:** Montgomery Watson and Harza; J-Power; Intertechne; Astaldi.

**Eragin nagusiak:** ekonomikoak, politikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

Dimentsioa	Eraginak	Deskribapena
Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehuna suntsitzea.	Toki-bizibideak desagertzea.
	Delitu ekonomikoak.	Estatu salvadortarra zorpetzea eta iruzurrak.
Politikoa	Demokrazia-urritasuna eta <i>lobby</i> .	Gardentasun eza eta administrazio-izapideak bizkortzea.
	<i>Lex mercatoria</i> eta subiranotasuna galtzea.	CIADIn beste demanda bat jartzeko mehatxua.
	Kriminalizazioa eta errepresioa.	Borondateak erostea, engainuak eta mehatxuak.
Soziala	Zerbitzu publiko eskuraezinak.	Energiaren prezioa eta ura merkantilizatzea.
	Emakumeen eskubideen gaineko inpaktuak.	Emakumeen beharizan praktikoek eta produktiboen gaineko inpaktuak.
Ingurumenekoa	Ura kutsatzea eta biodibertsitatea galtzea.	Mehatxu berri bat ur-baliabideekiko zaurgarritasuna pairatzen duen herrialde batean.
	Lurraldea suntsitzea eta biztanleak lekualdatzea.	Arazo geologikoak eta omisioak egingarritasun-azterketan.


## 1. Sarrera

Azken hamarkadan, Estatu Batuek eta Europar Batasunak asoziazio-itunak, merkataritza-akordioak eta legeak bultzatu dituzte Erdialdeko Amerikako estatuekin, eskualdean duten kontrol politikoa, ekonomikoa eta militarra areago sendotzeko, eta bertan dauden Europako eta, batez ere, Estatu Batuetako transnazionalak gotortzeko. Ildo horretan, Erdialdeko Amerikako Integrazio eta Garapen Proiektua –antzinako Plan Puebla Panamá– kapital transnazionalaren funtsezko barneratze-tresna da, bere ardatz ekonomikoaren parte diren proiektuen bidez


–garraioa, energia, telekomunikazioak eta merkataritza erraztea eta lehiakortasuna bezalako arloak jasotzen dituen ardatza–. Hain zuzen, Erdialdeko Amerikako Herrialdeen Interkonexio Elektrikoko Sistema (SIEPAC) energia-arlokoa da, eskualdeko herrialde guztiak barne hartzen dituen integrazio elektrikorako ekimena. SIEPAC sistemak interkonexio elektrikorako linea baten eraikuntza planteatzen du, 230 kilovoltetkoa eta 1.876 kilometroko luzerakoa. Herrialde gehienetan 2011 eta 2012 urteen artean eraiki eta inauguratutakoa, aurreikuspenen arabera Costa Rican atal bat eraikitzeko obrak 2014ko urrian amaituko dira. Bestetik, Eskualdeko Merkatu Energetikoa (MER) eratzeko plangintza prestatu zen, SIEPAC sistemari erabat lotuta, eta horren araudia 2013ko ekainaren 1ean sartu zen indarrean.

Erdialdeko Amerikako herrialdeetan, elektrizitatearen merkatua pribatizatzeke eta liberalizatzeke prozesua laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran abiarazi zen, egiturazko doikuntza-planen bitartez. Orduetik aurrera, transnazionalak elektrizitatearen sorkuntzan izan dute interesa gehienbat. Orain, SIEPAC sistemaren eskutik, negozioa egiteko eta errentagarritasuna lortzeko dituzten aukerak handitzen dira, lehiakortasun handiagoa eskainiko duen merkatu gisa egituratzen baitu eskualdea. Era berean, negozio horretan, erakunde multilateralen kredituekin finantzatutako inbertsioaren etekinak jaso besterik ez dute egiten transnazionalak, biltartean, Erdialdeko Amerikako estatuak hipotekatuta geratzen direlarik. Elektrizitate-sorkuntza megaproiektuetan pilatutako inbertsio horien artean, energia hidraulikoa, istmoaren orain eta etorkizun energetikoari begira, baliabide nagusia izango da.

SIEPAC eta MER beraien buruak energia elektrikoaren kostuak gutxitzeko epe ertaineko hautabide bezala aurkezten badituzte ere (energia-sorkuntza proiektu merkeagoak eta eskualdeko edozein herrialderi elektrizitatea saltzeko aukera direla eta), amaiera prezioek zalantzarik gabeko igotzeko joera bat azaltzen dute azken urteetan, bai sorkuntzaren bai banaketaren negozioak korporazio gutxi batzuen eskuetan pilatzen direlarik. Bestetik, SIEPAC sistemaren esparruan egin diren Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketa (IEA) guztiak inpaktu larriak jaso dituzte, baina inbertsioaren izaera estrategikoaren mendean geratu dira. Horrela, naiz eta herrialde guztietan uraren gaineko kutsadura eta eskuragarritasun arazoak dituzten hainbat arto egon, eta naiz eta 10,8 milioi pertsona etxean ur-hornidura zerbitzurik ez izan, ura elementu strategikotzat jotzen da marko honetan. Ura ondasun erkidea izateari uzten dio pribatizatutako ondasun ekonomikoa bilakatzeko. Kontzeptu hori areago indartzen da Erdialdeko Amerikako herrialde guztiak Europar Batasunarekin orain dela gutxi berretsitako Asoziazio-akordioarekin, ura transatzeko moduko ondasun gisa kalifikatzen duena, horrek transnazionalen interesak herritarren interesen gainetik kokatzea esan nahi duelarik.




## Estado de la línea SIEPAC, noviembre 2012



Fuente: Presentación Línea SIEPAC, Noviembre 2012 realizada por EPR, disponible en la web del Consejo Nacional de Energía de El Salvador. Actualizado a partir de la página web del Proyecto Mesoamérica.

## El Chaparralen kasua


Gerra bukatu ondoren, 1992. urtean, El Salvadorreko estatuak erregai fosilekiko zeukan mendekotasun handia nola edo hala gainditu behar zuten, baina energia berriztagarriko proiekturik garatzeko funtsik ez zeukan. Hortaz, eskariaren hazkunde-proiekzioei aurre egiteko asmoz, Lempa Ibaiko Batzorde Hidroelektriko Betearazleak (CEL) energia hidroelektrikoa kosturik txikiena eragingo zuten aukera bezala identifikatu zuten. 1997. urtean, hainbat azterketa egin zituzten herrialdeko iparraldean proiektuen egingarritasuna ikertzeko, zonalde hori baitzen potentzial hidroelektrikorik handiena zuena. 2001. urtean, beste proiektu batzuen artean, El Chaparral zentral hidroelektrikoa jartzeko gune bezala zehaztu zuten, Torola ibaiaren gainean, eta San Miguel departamenduko San Antonio del Mosco, Carolina eta San Luis de La Reina udalerririk barne hartuta.



Fuente: Sermeño (S.F.)

Nahiz eta 1996. urtean elektrizitatearen merkatua liberalizatu, El Salvadorreko proiektu hidroelektriko handiek estatuaren kontrolpean jarraitu dute, CEL batzordearen bitartez. Dena dela, azterketa-prozesuaren faseetan –zentralen diseinua, eraikuntza eta handiagotzea– zehar, CEL batzordeak hainbat enpresaren zerbitzuak azpikontratatu ditu, lizitazioaren, lehiaketaren edo zuzeneko kontratazioaren bitartez. El Chaparraleko proiektuan, 1997an egingarritasun-azterketak egiten hasi zirenetik gaur arte, hainbat tokitako zenbait enpresak egin dizkiote zerbitzuak CEL batzordeari, zentrala abian jartzeko.





## El Chaparraleko zentral hidroelektrikoaren kronologia eta enpresak

- 1997 - 1998** Harza Engineering enpresak (AEB)\* Torola ibaiaren gaineko Konplexu Hidroelektriko Proiektuaren aurretiazko egingarritasun-azterketa egin zuen.
- 2001 - 2004** Harza Engineering enpresak Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketaren atal batzuk prestatu zituen (J-Power enpresak azpikontratatuta). 2001ean, Harza enpresak Watson Hawksleyrekin bat egin zuen, Montgomery Watson and Harza\* sortuz.  
  
Electric Power Development enpresak (J-Power, Japoniakoa) egingarritasun-azterketa burutu zuen.
- 2005 - 2006** Intertechne enpresak (Brasil) oinarrizko diseinuaren azterketa eta lizitazioa egin zituen.
- 2009 (no finalizado)** Astaldi enpresak (Italia) zentral hidroelektrikoa eraiki zuen.
- 2013 - actualidad** Intertechne enpresak diseinu zehatza eta aholkularitza teknikoa burutu zituen urtegiaren eraikuntzarako.

\* 2010.ean, Montgomery Watson and Harza enpresak Bewater Services britainiarra eskuratu zuen.

Kontratua “giltza eskura” esleitu ondoren, Astaldik 2009ko urtarrilaren 5ean obrari hasiera eman zion, 2013ko urtarrilaren 12rako bukatzeko asmoz. J-Power enpresak prestatutako egingarritasun-azterketaren eta Intertechnek egindako oinarrizko diseinuaren arabera burutu zen. Ez zen diseinu zehatzik egin, eta, hortaz, 2010eko maiatzean El Salvadorretik igaro zen Agatha ekaitzak kalteak eragin zituen urtegiaren oinarrizko egitura. Horren ondorioz, proiektua amaitzeko epea atzeratu egin behar izan zen, eta gatazka piztu zen Italiako enpresaren eta CEL batzordearen artean. Azkenean, gatazka konpontzeko, kontratua deuseztatu egin zen, 2012ko ekainean autonomoak 108,5 milioi dolar ordaindu ondoren.

El Chaparral proiektuaren diseinu-azterketa nagusiak eta eraikitze-lanak egiteaz arduratu ziren lau transnazionalen gain, CEL batzordeak 21 enpresa azpikontratatu ditu guztira, zentral hidroelektrikoa abian jartzeko beharrezkoak ziren hainbat alderdi garatzeko.

## 2. Inpaktu nagusiak

Irregularitasunek eta salvadortar araudiaren urraketek markatu dute hasieratik El Chaparral proiektu hidroelektrikoa. Hala ere, ARENaren gobernu desberdinak hogeitaz betiketza El Salvadorreko exekutiboan (1989-2009), proiektu honen testuinguruan burututako ustelkeria delituen gain, baita beste batzuen gain ere, Errepublikako Fiskaltza Nagusiak (FGRK) esku-hartzea galarazi zuen, erakunde, komunitate eta mugimendu sozialek sarritan salatu bazituzten ere. Oraingo gobernu boterera iritsi zenean, kasu hau eta beste batzuk agerian jarri ziren. Tomás Campos Villafuerte ingeniariak ekarpen handia egin zuen horretan Elektrizitate eta

Telekomunikazioetako superintendente nagusi gisa lanean eman zituen sei hilabeteetan, inpaktu-azterketa honek berak egindako lana oinarritzat hartzen duelarik hein handi batean.

## 2.1. Dimentsio ekonomikoa

### 2.1.1. Bertako ekoizpen-ehuna suntsitzea: toki-bizibideak desagertzea


Obra egitera zuzendutako zenbatekotik, 138 milioi dolar, oso gutxi geratu zen esku salvador-tarretan: proiektuan parte hartu zuten El Salvadorreko 16 enpresek % 5,29 baino ez zuten jaso eta gainerakoa, hau da, % 94,71, atzerriko 10 konpainien eskuetara joan zen. Bestetik, ez zen ekoizpen-ehunik sortu, ezta lanpostu berririk ere. Zentral hidroelektrikoaren kontrako erresistentziaren protagonistetako bat izan zen Aita Confesorrek honela azaldu zuen: “kontratututako langile gehienak hona ekarritako nikaraguarrak eta hondurastarrak dira”. Bitartean, proiektuak komunitateen bizibideak suntsitu zituen: nekazaritza eta abeltzaintza. Honela azaldu du Margarito Romerok:

“Gu han bizi gara, eta atera egin nahi gaituzte handik. Urtegia eginez gero, dena suntsituko digute. Han azukre-kanabera dago, kanabera landatzen da; milpa dugu, milpa egiten dugu; etxea suntsitzen digute, eta nora joango dira familia horiek guztiak? Gu behiari eta oiloari esker bizi gara, horiei guztiei esker. San Luis de La Reinan entzun nuen etxe duina emango zigutela. Baina nola emango digute etxe duin bat, hemendik ateratzen bagaituzte?”.

### 2.1.2. Delitu ekonomikoak: iruzurrak eta estatu salvadortarraren zorpetzea

Tomás Campos superintendente ohiak J-Power enpresa japoniarrak egindako proiektuaren egingarritasun-azterketa, ikuspuntu tekniko zein ekonomikotik, funtsik gabekoa zela salatu zuen. Merkatu-azterketak salneurrien eskaintzan oinarritutako merkatu-ereduaren deskribapen bat baino ez zuen jasotzen, nahiz eta eskaintza jada indarrean egon ez. Ez zen energia saltzeko sistema zehazten. Finantza-azterketak ere hutsuneak zituen: ez zeukan informaziorik proiektuaren ekonomia – eta finantza-ebaluazioaren prozesua ikusaraztea ahalbidetzen zuenik. Azterketaren egiazkotasuna eta kalitatea zalantzan jartzen zituzten datu bakan batzuk baino ez zituen azaltzen, gertatuz joan diren ondoz ondoko kostu-igoerek berretsi dutenez. Bestetik, azterketak ez zuen proiektuaren errentagarritasuna neurtzeko erabiliko ziren parametro ekonomikoak zenbatzeko aukerarik ematen.

Hortaz, hasierako azterketak egin zirenetik orain arte, El Chaparralen exekuziorako beharrezko aurrekontua ia bikoiztu egin da. 2004an, J-Power enpresak 135,4 milioi dolarreko inbertsio-kostua finkatu zuen guztira, eta Astaldik 2008an irabazitako eskaintza 219,2 milioi dolarrekoa izan zen. Horri 2001etik hona abian jarri ahal izateko beharrezkoak izan diren beste ekintza batzuei lotutako kontzeptuak gehitu behar dizkiogu. Guztizko zenbatekoa 247,75 milioi dolar dira. Hala ere, kopuru hori lortzeko, azken eraikuntzaren lizitazioak 110,7 milioi dolar baino ez ditu erabili behar, Astaldiri kalte-ordain gisa emandako 108,5 milioi dolarrak kendu ondoren ateratako emaitza. Azken batean, estatua zorpetu egin da, ezin ordainduzko kostuak dituen proiektu batekin. Gainera, gogoan izan behar da 2007an BCIEren 167 milioi dolarreko mailegua



lortu zela 15 urtetarako, % 6,5eko interesarekin eta graziatzko bost urterekin. Hortaz, gaur egun interes horiek ordaintzen ari dira, inolako sarrerarik lortu gabe.

Ez dakigu zein izan ziren CEL batzordea proiektuarekin jarraitzera eta, are gehiago, Astaldiren eskaintza berdintzeko Intertechnek emandako jarraibideak betez, aurrekontuaren zenbatekoak areago handitzera bultzatu zuten arrazoi ekonomikoak. Ez da dokumentu tekniko edo ekonomiko nabarmenik aurkitu prozesu hori justifikatzeko, eta, beraz, litekeena da CEL-Intertechne-Astaldi triangelua iruzurrezkoa izatea.

Lehenik eta behin, badirudi Intertechnek ez zuela oinarrizko diseinurik garatu, horren ordaina jaso arren. Camposek honela azaldu du: “Haiek erraz irabazi zuten dirua, oinarrizko diseinu bat berriz saldu zutelako, eta ustez lizitazioko diseinua egiteko kontratatu zituzten”. Hortaz, Intertechnek berriz doitutako aurrekontuarekin, Astaldik lizitazioa irabazi zuen gardentasun eskaseko prozesu batean, azken diseinurik gabe, eta Brasilgo transnazionalaren azken berrikuspenak zehaztutakoa baino % 40 garestiagoa izanda.

Proiektuaren lehen fasean zehar triangelu horrekiko engainu-sentsazioa aski ez balitz, 2013an Intertechne kontratatu zuten berriz, proiektua berriro diseinatzeko, 5,8 milioi dolarren truke. Proiektuaren prozesuak aztertzeko sortu zen Legebiltzarreko Batzorde Bereziak zalantzan jarri du kontratu hori.

## 2.2. Dimentsio politikoa

### 2.2.1. Demokrazia-urritasuna eta *lobby*: gardentasun eza eta administrazio-izapideak bizkortzea

El Chaparral proiektua garatzeko prozesua aski iluna izan da, eta irregulartasunez beterik egon da. Alde batetik, 1997an zentralerako azterketak egiten hasi zenean, CEL batzordeak ez zeukan lan horretarako beharrezkoak ziren baimenak, eskatu ere ez baitzituen egin. 2006ko uztailan, baliabide hidraulikoa ustiatzeko kontzesioaren lehen eskaera egin zuen unean, ez zuen lege-gaitasunik erakutsi obra egiteko, eta, gainera, ez zeukan MARN ministerioak onetsitako IEA. Elektrizitate eta Telekomunikazioetako Superintendentzia Nagusia (SIGET) isilik geratu zen irregulartasun horiek ikusi arren, eta, beraz, uste izatekoa da komunikazio ez-ofiziala izan zela instantzia horren eta CEL batzordearen artean. Izan ere, bistan da CELeK presio argia egin zuela SIGETek kontzesioa lehenbailehen eman zezan. Horiek horrela, CELeK, bere eskaeraren gabezia eta irregulartasunak ikusita SIGETek atzera botako zuela eta, beraz, beste eskaera bat aurkezteko sei hilabete itxoin beharko zuela jakinik, hasierako kontzesioaren eskaera-agiriak erretiratu zituen, 2006ko abuztuaren 8an. Momentu hartatik aurrera, eta oso denbora-epe laburrean, hainbat aldaketa bultzatu zituen, SIGETen zeregin arautzailea beretzat hartuta: batetik, Elektrizitatearen Lege Orokorrean eta, bestetik, baliabide geotermiko eta hidraulikoak elektrizitatea sortzeko erabiltzeko kontzesioetarako behar den lizitazio-prozedurarako arau aplikagarrietan. Aldaketa horien ondorioz, kontzesio-eskaeren difusioa eta CEL batzordeak kontzesiorako baimena emateko epea txikitu egin ziren, bai eta eskaeren kontrol publikoa eta publizitatea ere. Urriaren 11n, CELeK IEAri buruzko MARN ministerioaren Aldeko Irizpen Teknikoa lortu zuen, eta, horren bidez, kontzesioa berriz eskatu zuen, urriaren 20an. Erretiratu eta 73 egun igaro ondoren. Jaso eta hiru egunera, SIGETek onartu eta argitaratu egin zuen, berriz, nahiz eta prozesu horretarako 13 eguneko epea finkatuta egon, jada aldatuta zeuden araei jarraiki. Orduetik


aurrera, egoera are harrigarriagoa izan zen: urriaren 20a ostirala zela kontuan izanda, SIGETek asteburuan berrikusi behar izan zuen dokumentazio osoa, eta, urriaren 23an –astelehena–, ordu txikietan bidali behar izan zuen, estatuko bi egunkaritan argitaratzeko, nazioarteko hedabideetan atera gabe, tankera hauetako proiektuetan hala egin behar den arren.

Azaroaren 9an, kontzesioaren eskaera argitaratu eta 17 egun igaro ondoren, SIGETek erabaki zuen ez zegoela ez aurka egiteko arrazoirik, ez proiektu baztertzailerik, eta lehiaketara atera zuen El Chaparraleko proiektua. Erakundeak bost eguneko epea finkatu zuen, interesa zuten entitateek lizitazio dokumentuak eskura zitzaten, hau da, Elektrizitatearen Lege Orokorren araudi berriak finkatutakoa baino 25 egun gutxiago. Gainera, kontuan izan behar da Elektrizitatearen Lege Orokorra urri horretan aldatu zutela, prozedurak zituen epeak murrizteko. Bestetik, inongo arauditan jasota ez zeuden murrizketa ekonomikoak finkatu zituzten, CEL ez beste enpresei partaidetza mugatzeko. Era horretan, azaroaren 27an, SIGETek CEL batzordeari eman zion kontzesioa, bera izan baitzen dokumentuak aurkeztu zituen erakunde bakarra; eta, abenduaren 6an, kontratua sinatu zuen. Handik egun batera, CEL batzordeak EL Chaparral eraikitze obraren lizitazioa eskaini zuen. SIGETek ez zituen ez zaindu ez kontrolatu lehen lizitazioa argitaratu zenetik Astaldi eraikitze-lanekin hasi arte gertatutako ekintza ugari.

Bestetik, irregulartasun batzuk hauteman ziren ingurumenaren gaineko baimena emateko CELeke erabilitako prozeduran. Lehenik eta behin, ez zuen IEA gaurkotu behar zen moduan, Astaldik eraikitze-lanak egiteko irabazitako lizitazioa 2008an argitaratu baitzen, hau da, MARN ministroan lehen azterketa aurkeztu eta handik lau urtera. Horrela, Ingurumenaren Legeak (LMAK) IEA egiteko ezarri zituen mugak hautsi zituen. Gainera, zentzuzko zalantzak daude IEAri berari buruz ere, eta ea MARNeke onetsitako terminoekin bat datorren, muga tekniko ugari daudelako. Bestalde, 2006ko irailean, Ingurumenaren Legeak finkatutakoari jarraiki, Carolina, San Luis de la Reina eta San Antonio del Mosco udalerrietan herritarrei egin zizkieten kontsultetan, irregulartasun ugari izan ziren, parte hartzera gonbidatutako pertsonen ordezkaritasunik ez zutelako gehienbat.

El Chaparral proiektuaren udalerrietan egindako galdeketen xehetasunak	
Kontsulta	Xehetasunak
Carolinako Udalerria	120 pertsonen hartu zuten parte. Bertaratutako batzuek adierazi zuten galdeketerako gonbidapenak ez zuela biztanleri osoa ordezkatzen, barnerakoia ez izateagatik eta interesatutako zein ukitutako pertsona guztiak aintzakotzat hartu ez izanagatik. MARNaren txostenak adierazten du kontsulta burutu zen CELeke azpiegiturretatik at 100 pertsona zeudela, gonbidatuta ez egoteagatik parte hartu ezin izan zutenak.
San Antonio del Mosco Udalerria	57 pertsonen hartu zuten parte. Galdeketak proiektua exekutatu den zonaldeetako biztanleen parte hartzea ez duela aurreikusten arrazoitzen dute, interes handiena duena eta ukituena izanda. Azkenean kontsulta egin zen bertaratutako batzuen aurkakotasuna izanda ere, eta udalerriarren beharrian eta interesari egokitzen ez den proiektu bat bultzatzeagatik CELeke aurkako erreklamazioak izanda ere.
San Luis de la Reinako Udalerria	36 pertsonen hartu zuten parte. Hiruk eman zuten iritzia, eta horietako bik, kontrakoa eman zuten.

Iturria: Gure elaborazioa Rosan oinarrituta (2009).



### 2.2.2. *Lex mercatoria* eta subiranotasuna galtzea: CIADI aurrean demanda jartzeko mehatxua

2009an, obra hasi berria zegoela, gobernua aldatu egin zen; gainera, alde horretako biztanleak aurka zeuden erabat eta administrazio berriko funtzionario garrantzitsu batzuek (besteak beste, Tomás Campos superintendente ohiak eta Ingurumeneko ministroa zen Herman Rosak) txostenak egin zituzten eraikitze-lanak batere egokiak ez zirela azaltzeko. Hala, bada, El Chaparraleko eraikitze-lanak geldiaraziko zituztela uste zen. Alabaina, orduan CEL batzordeko buru zen Nicolás Salumek aditzera eman zuen ezin zela horrelakorik egin, lanak geldiarazte-kotan, El Salvadorrek 500 milioi dolar inguruko demanda bati egin beharko baitzion aurre, nazioarteko arbitrajea. Nolanahi ere, 2010eko maiatzean, Agatha ekaitzak gogor astindu zuen El Salvador, eta kalte izugarriak eragin zituen herrialde osoan, urtegiko oinarritzko egituran bereziki. Kalte horien ondorioz, aurreikusita zeuden epeak atzeratu egin behar izan ziren. Gainera, mugimendu geologikoak izan ziren urtegia ainguratu behar zen eskuineko aldean, eta, horren ondorioz, proiektua geldiarazita dago oraino.

Horiek ikusita, Astaldik azaldu zuen, “egoera geologiko, geotekniko eta hidrogeologiko berriak” aintzat hartuta, zaila zela eraikitze-lanekin jarraitzea, eta 52,3 milioi dolar gehiago eskatu zituen egoera berriari ekin ahal izateko. Hala ere, eskaera hori ez zen bidezkoa, giltza eskura proiektua baitzen, prezioa eta epea itxita zituena, alegia, eta, beraz, obrak egin bitartean agertzen ziren akatsak edo arazoak eskaintzaren gainkostuan sartzen ziren. CELeK 65,9 milioi dolarreko aurrerakina jarria zuen, eta ibaia desbideratzeko obretarako ziren 19,7 milioi dolarren zati bat ordaindua. Horrenbestez, aurre egin zion Italiako enpresari, CIADIn demanda bat jartzeko mehatxua egin baitzuen horrek.

2012ko uztailean, CEL batzordeko egungo presidente Leopoldo Samour iritsi zenean, Astaldik eta CELeK akordioa egin zuten. Horri jarraiki, CELeK 108,5 milioi dolar ordaindu behar zizkion Italiako enpresari; horietatik, 85 milioi obra eraikitze dokumentuetan zeuden jasota, eta gainerakoak kontratua burutzeko baliatu behar ziren. Horrela, CIADIn beste arbitraje bat izatea saihestu zuen El Salvadorreko gobernua. Dena dela, inoiz ez zen argitu obra hain leku desegokian egiteko erantzukizuna norena zen, prozesuko zein zatik egin zuen huts eta nor edo nortzuk ziren erantzuleak.

### 2.2.3. Kriminalizatzea eta zapaltzea: borondateak erostea, engainuak eta mehatxuak

2000. eta 2009. urteen artean, opariak, mehatxuak, borondate-erosketa eta jazarpena ohiko bihurtu ziren, San Antonio del Mosco, San Luis de la Reina eta Carolina udalerrietako biztanleen bizitzan. Herritarren ustez, CEL batzordeko eta orduan herrialdea gidatzen zuten ARENaren gobernuko funtzionarioak izan ziren bake eta bizitzarako eskubidearen urraketa horien egileak. Horiek horrela, Astaldi posizio pribilegiatuan zegoen: alde batetik, berak jasoko zuen onura gehien ikuspegi ekonomikotik eta, bestetik, bigarren mailan gera zitekeen, momentuko gobernua hartutako erabakien betetzailerik hutsa balitz bezala. Komunitateen lekukotasunak oso argiak dira:

“Nire kasuan, CELekoak paper bat ematera etorri zitzaizkidan, eta esan zidaten, saltzeko prest egon ezean, berdin zitzaizela, ura lepoan nuelarik emango nuela urratsa. Gero, CELeko bi pertsona etorri ziren esatera, hobe nuela joan, bestela hil egingo nindutela eta”.

“Burusagiak bahitzeaz ere hitz egiten zuen talde bat aipatu zen. Taldekideak polizien eta soldaduen uniformeak jantzita ibiltzen omen ziren. Behin, ni Cerro Miracapan nengoela, haxe esan zidaten: Aita, ez mugitu, hil egingo zaituztela esaten dute eta! Alde honetan esaten da, talde bat etengabe dabilela hortik. Bestalde, hiltzeko eta espetxeratzeko mehatxua egin ziguten bost apaizei. Jainkoari eskerrak, ez da ezer gertatu, eta bizirik gaude. San Salvadorreko artzapezpikuak berak esan zidan, kontuz ibiltzeko, edozer egiteko gai zirela”.

Errepresioa erabiltzeaz gain, CEL batzordeak ahalegina egin zuen, San Miguel iparraldeko alkate eta apaiz batzuek presak kaltetutako biztanleei ematen zizkieten laguntza eta defentsa kriminalizatzeke.

## 2.3. Dimentsio soziala


### 2.3.1. Zerbitzu publikoak: energiaren prezioak eta ura merkaturatzea

Eskualdeko Plangintza Adierazgarriko Lan Taldearen (GTPR) 2012-2027 Sorrera Zabaltzeko Eskualdeko azken Plan Adierazgarrian finkatutako proiektu hidroelektriko berrietarako inbertsioaren aleko kostuaren arabera, Erdialdeko Amerikako proiektu berrien aleko kostua aski altua da, eta, zenbaitetan, ezin ordainduzkoa. Horixe gertatzen da, hain zuzen, El Chaparralen, El Salvadorren energia hidroelektrikoa saltzeko gaur egun dauden prezioen gain-gainetik baitago bere inbertsio-kostua. Horregatik, nekez sinets daiteke azken hartzaileak herrialdeko bizilagunak izango direla. Eta energiaren eroslea nor edo nortzuk izango diren ere ez dago batere argi. Hau da, barneko merkaturan sartuko den, edo SIEPAC sistemako eta MER merkaturako proiektuaren esparruan Amerikako Erdialdeko herrialdeei saldu edo esportatuko zaien. Egingarritasun-azterketan hori aipatzen da, baina ezer zehaztu gabe.

MER merkaturaren testuinguruan azaldutako gainerako proiektu hidroelektrikoetan bezala, itxura denez, El Chaparral proiektuan ere ura merkaturatzeko prozesuari lotutako interes ekonomikoak daude. Gainera, ohikoa denez, enpresa elektrikoek etekina atera nahi diote urari, ondasun ekonomiko gisa hartuta, eta kaltetutako komunitateek dituzten beharrizan sozialen gainetik jarri nahi dute, erabiltzeagatik batere ordaindu gabe.

### 2.3.2. Emakumeen eskubideak

El Chaparraleko proiektuarekin kaltetutako emakumeek zailtasun handiak izan dituzte informazioa lortzeko, eta proiektuak eta programak ikusi ahal izateko. Hala izan ez balitz, aukera izango zuketuen beren bizitza-proiektuko interesez hausnartzeko. Hartara, indarra lortu ahal izango zuten beren bizitzako pobrezia, desberdintasunari, degradazioari eta arriskuari aurre egiteko. Izan ere, emakume horiek San Luis de la Reina, San Antonio del Mosco eta Carolina udalerrietan bizi dira, eta horiek muturreko pobrezian murgildutako udalerrien artean daude sailkatuta. Horregatik, presak nabarmen eragingo du lurraldeko emakumeen beharrizan praktikoko eta produktiboetan, alegia nekazaritzan aritzeko natura-baliabideak eskuratzean, adibidez: egurra –alde horretako ohiko erregaia, gehienbat emakumeek biltzen dutena–, ura eta lurra. Baliabide horiek eskuratzeko zailtasun handiagoak izatearen ondorioz, emakumeek lan gehiago egin beharko dute etxeko zereginetan.



Azken batean, proiektuaren ondorioz, komunitateetako emakumeek aukera gutxiago izango dute egokitzat jotzen duten bizitza-proiekturantz aurrera egiteko, arrakala sakonagoak azalduko baitira emakumeen beharizan praktikoetan. Hortaz, emakumeen mendekotasun-estatusa betikotzeaz gain, zaildu egiten da patriarkatuak tradizioz zehaztutako lan-banaketa, arauak eta rola zalantzan jartzea.

## 2.4. Ingurumeneko dimentsioa

### 2.4.1. Ura kutsatzea eta biodibertsitatea galtzea

El Salvadorrek 1.752 m<sup>3</sup> ur edangarri ditu biztanleko urtean, hau da, Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundeak (FAOk) ezarritako gutxieneko kopurua baino 52 m<sup>3</sup> gehiago soilik. Kopuru hori areago murrizten da, azaleko uren kalitate baxuaren ondorioz: MARN ministerioak 2011n egin zuen kontrolaren arabera, herrialdeko toki batek ere ez zuen kalitate bikaineko urrik. Horiek horrela, zentral hidroelektriko bat egiteak areago larriagotuko luke berez aski kezkatzekoa den ur-baliabideen egoera. Hala Torola ibaiaren arroko oraingo biztanleentzat, nola presatik behera kokatutako Lempa barreneko oraingo eta geroko belaunaldientzat.

Pres handiek eragin kaltegarriak izan ditzakete inguruko biodibertsitatean eta uretan, besteak beste, hauek: 1) uraren kalitatea eta osasungarritasuna txartzea, 2) ur-ekosistema hondatzea eta itsas espezie migratzaileen biodibertsitatea galtzea eta 3) berotegi-efektuko gas-isurketak, urtegia eraikitzean deskonposatu eta lurperatutako materia organikoaren ondorioz. San Antonio del Mosco eta Carolina komunitateek esan dutenez, inpaktu horietako batzuk pairatzen ari dira dagoeneko. Manuel de Jesús Romerok honela azaldu du: “Arazoak izan dira, eraikitze-lanetan erabilitako gai kimikoek ura kutsatu dutelako, batez ere ibaian behera dauden udalerrietan, Nuevo Edén de San Juanen eta San Gerardon. Jendeak zuzenean edaten zuen ibaitik, haiek egindako ur-bilketa batetik; baina, urari kolorea aldatu zitzaion, eta, harrezkero, ezin izan dute beren etxeetara eraman. San Gerardoko alkateak berak eskatu zien ur hori ez edateko”. Hauxe gaineratu du Confesorrek: “Gutxienez, 30 etxadi inguru basogabetu dituzte erabat. Ibaien behera, arrain guztiak hil egin dira. Emaria % 45era murriztu da; urtez urte, ura putzuetan trabatuta dagoela ematen du, oso ur gutxi irteten baita. Udan, Torola ibaiaren egoera ikaragarria da”.

### 2.4.2. Lurraldea suntsitzea eta biztanleak lekualdatzea

Pres amaituta ez badago ere, ondorio sismikoak izan ditu El Chaparralen, ez urtegiko uraren presioagatik, euriarengatik baizik. 2010ean, Agatha ekaitz tropikalak mugimendu geologikoa sorrarazi zuen dikearen eskuinaldean, eta horrek proiektua geldiaraztea ekarri zuen. CEL batzordea arrisku horretaz ohartarazi zuten, hala J-Power enpresak 2004an egindako egingarritasun-azterketan, nola superintendente ohiak 2009an.

Bestalde, aditzera eman denez, egingarritasun-azterketan omisio larriak daude, eta horiek zalantzan jartzen dute inguruan elektrizitatea sortzeko aukera hori eta zentralaren jardueramethodologia egokiak diren. Hori bereziki garrantzitsua da kasu honetan, zeren eta CELen beste hiru presa Lempa ibaiaren gainean daude kokatuta eta beste bat Lemparen ibai-adar baten gainean –Guajoyo zentrala Desagüe ibai gainean–, El Chaparral bezala, Lempara doan



Torola ibai gainean kokatuta baitago hori. Hortaz, bost presa ditugu urak Lempa ibaira ematen, eta, beraz, are konplexuagoa da ibaiko ur-baliabideak kontrolatzea, negu aldean izaten diren gainezkatzeak direla eta. Orain arte, CEL ez da egoera kontrolatzeko gai izan, eta, ondorioz, Lempa barreneko biztanleek uholdeen eraginak nozitu behar izan dituzte: uzta-galtzeak eta, urte batzuetan, baita jendea hiltzea ere.

Proiektuak ingurumenaren gainean dituen inpaktuei dagokienez aurkitu den azken akatsak MARN ministerioak 2006an onetsitako azken IEAn urtegiak kaltetutako pertsonetikiko dagoen gutxiespenarekin du zerikusia: azterketak proposatzen du “eduki sozial zabaleko programa baten bidez”, zuzeneko eraginpeko eremuan dauden eta lekuz aldatuko lirartekeen 102 etxebizitzetako pertsonak berriz kokatzea eta/edo konpentsatzea. Komunitateen arabera, aldiz, sekula ez da horrelakorik egin:

“Begira, orain eragin zuzena izan du erabilia izan den jende horrengan. Ez dute pistorik (dirurik), ez dute lursailik, ez dute lekurik abereak eramateko. Sail batean edo bitan, familiako 20 bat lagun bizi dira, bizirik irauten dute, baina ezer gabe geratzea... Hor, Bajón, gizon bat ederto bizi zen: ura zuen, eta abere asko. CELe kontratatutako buruzagi bat joan zitzaion, eta gizona lurrik gabe eta abererik gabe geratu zen. Orain, sakan baten ertzean bizi da. Ezin du milpa egin, eta orain alokatuta bizi da. CELe esan omen dio ura ez dela haraino iritsiko; baina, beherago iritsiko da, eta bera ertzean bizi da. Ez ahal da sakanetik behera irristatuko etxetxo eta guzti! Eta lurra urez bete ondoren, okerrago izango da”.

Era berean, itxura denez, lekuz aldatuko ziren biztanleei etxe berria ordaintzeko eskatzen zieten, “kenduko zioten lursailaren truke emango zioten diruarekin (...) eta jendearen lanarekin”.


CELe egindako kalkulua eta kaltetutako komunitateek egin eta Tomás Camposek 2012an jasotako landa-lanarena oso desberdinak dira. Azken horren arabera, 1.687 familia dira; eta hori San Luis de La Reinako familiak aintzat hartu gabe, udalerrri hori ez baita kaltetutzat jo.

### 3. Erresistentziak eta proposamenak

Erdialdeko Amerikako profil ekonomiko berrirako behar diren baliabideak eta azpiegiturak hornitzeko proiektuen aurrean, hainbat biltzar eta mugimendu antolatu dira, estatuan, eskualdeetan eta nazioartean, lurraldeak babestearren tokikotik mundurako erresistentziako agendak koordinatu ahal izateko. Ur-baliabideak defendatzeko borroka eta presen eta meatzeean aurkako erresistentzia izan dira eskualdean eraginik handiena izan duten mugimenduak. Mugaz gaindiko proiektuak egiteko, estatuko mugak gainditu behar izan dituzte mugimendu sozialek, eta, horrela, elkartasuneko loturak gauzatu dira.

Herrialdean zentral hidroelektrikoak jartzeko bigarren boladan (XXI. mendeko lehen hamarkadan), mehatxatutako lurraldeetan zeuden gobernuz kanpoko erakundeek eragin handia izan zuten erresistentzia-prozesuan. Ingurumenaren arloko zenbait erakunde (UNES eta CESTA, batez ere), eta ibilbide luzea eta konpromisoa erakutsi duten beste batzuk (berezi-ki, CRIPDES, Cáritas, FUNPROCOOP eta FUNDAHMER) ereduak izan dira, erresistentzia-





prozesuei laguntzeari dagokionez. Prozesu horien ondorioz, eta Erdialdeko Amerikako presen kontrako lehenengo hiru foroetako hausnarketei eta konpromisoei esker, 2004. urtean, borroka guztiak koordinatzeko lehen ahalegina sortu zen: El Salvadorreko Presen aurkako Koordinakunde Nazionala. Estatu mailako erresistentziarako estrategia antolatu nahi zuten, eta, azkenean, El Salvadorreko Presen aurkako Mugimendu Nazionala (MONARES) sortu zen, 2006an. Hala ere, MONARES mugimenduan ez zeuden gai horretan erreferentziazkoak ziren beste erakunde batzuk, eta ikuspegi desberdinak zituzten ibaiak babesteko borroka gidatu behar zuten ardatz estrategikoei buruz. Ondorioz, mugimendua desegin eta MOVIAC sortu zen, azkenean.

Horiez gain, Heriotza Proiektuen aurkako Mugimendu Nazionala (MNCPM) sortu zen 2008an, erlijio-sektoreek gidatutako erresistentziaren esparruan. Harrezkero eta gaurdaino, sendotu egin da, beste gune batzuei laguntza emanez eta haiekin egituratuz, adibidez: Meatzaritza Metalikoaren Kontrako Mahai Nazionalarekin eta Uraren Foro Nazionalarekin. Horri guztiari esker, 2013an Ingurumen Aliantzari sartu da.

### 3.1. El Chaparralek kaltetutako komunitateak

El Chaparralen kontrako erresistentziako buruen artean, borrokan lagundu duten hamaika gobernuz kanpoko erakunde, mugimendu sozial eta erakunde aipa daitezke, baina ezin da denak barne hartuko dituen bat zehaztu. Honela azaldu du Confesorrek: “Hainbat erakundek eman digu laguntza eta erakutsi digu elkartasuna, esate baterako: CESTA, FESPAD, PDDH, UNES, SERCOBA, Federación Luterana, Casa Pastoral de Berlín eta Laicos Unidos por el Evangelio erakundeek eta zenbait hedabidek (Radio Segundo Montes eta Cadena mi Gente irratiak, esaterako)”.

Hala ere, bertako mobilizazioa indartsua eta etengabea izan da, hala komunitatean nola udalerrietan –batez ere, San Antonio del Moscon eta Carolinan–. Komunitateek jakin badakite 1996. urte inguruan hasi zirela azterketak egiten, eta erresistentzia 2000. urtean jarri zela abian, Carolina udalerrian, hain zuzen. Harrezkero, ekintza ugari egin dira proiektua geldiarazteko eta egoera lehengoratzeko: komunitatea inpaktuez informatzeko eta sentsibilizatzeko bilerak, lege-aholkularitza eta aholkularitza teknikoak, eta ibilaldiak, zaintzak eta mobilizazioak San Miguelen, Legebiltzarrean, CEL batzordearen instalazioetan eta presidentearen etxean San Salvadorren.

2010eko maiatzean El Chaparral geldiarazi zenetik 2013. urtearen erdialdera arte, borroka publikoak indarra galdu zuen. Orduan, bestelako estrategiak erabiltzen hasi ziren, adibidez: aliantzak lortzen, botere-inguruetan, Legebiltzarrean, Giza Eskubideen Prokuradoretzan edo FESPADen. Alabaina, proiektua berriz abian jartzean, kaleak hartzen hasi dira berriro.

Hamabost urte baino gehiago borrokan eman ondoren, taldekatzeko eredu berrien ondorioz, beharrezkoa da zentral hidroelektriko handiei aurre egiteko borroka-molde berriak bilatzea eta beste mugimendu eta erakunde batzuekin bat egitea, eredu energetikoa zalantzan jartzeko jendartean. El Salvadorren, Alianza Ambiental mugimendua, adibidez, ereduazko da ildo horretan.

Azken batean, matrize elektrikoa eta, oro har, matrize energetikoa aldatzeko, ezinbestekoa da egituraketa politikoa eta teknikoa hobetzea, elektrizitatearen sorrerarekin zerikusia duten sektoreen (governuko erakundeen, langile teknikoek eta gizarte zibilaren) artean. Era berean, natura-baliabideen babesarekin zerikusia duten mugimenduekin antolatu beharra dago, eta biztanle guztiek (energia sortzeko proiektuak abiaraztean kalteak hartuko dituzten biztanleek, batez ere) nahi duten garapen-eredua errespetatu behar da.



## **Kolonia**

Emakumeak loreen industrian





**Tokia:** Cundinamarca departamendua (Kolonbia).

**Sektore ekonomikoa:** agroindustria.

**Enpresa:** Chía taldea, The Elite Flower, Sunshine Bouquet, Flores Ipanema eta beste batzuk.


**Eraginak:** ekonomikoak, politikoak, sozialak eta ingurumenekoak.

Dimentsioa	Eraginak	Deskribapena
Ekonomikoa	Bertako ekoizpen-ehuna suntsitzea.	Lan-mendekotasun handia loreen industriarekiko.
	Delitu ekonomikoak.	Irregularutasunak sektoreari funts publikoak ematean eta erabiltzean.
Politikoa	Demokrazia-urritasuna eta <i>lobby</i> .	Presioa AEBekin Merkataritza Askeko Ituna sinatzeko eta hauteskunde-kanpainak ordaintzea.
Soziala	Lan-baldintzak eta eskubide sindikalak.	Behin-behinekotasuna, gutxieneko soldata, laguntza sozialak ez ordaintzea, 10-12 orduko lanaldiak egunero, lan-gaixotasunen maiztasun handiagoa.
	Genero-desberdintasunak.	Langileen hondamen psikosoziala "lanaldi bikoitzaren" ondorioz, lan-inpaktuek seme-alabengan duten eragina.
Ingurumenekoa	Airea, ura eta lurra kutsatzea.	Akuiferoen gehiegizko ekoizpena, ingurumeneko kontrol publikorik ez, kalteak langileen osasunean.

## 1. Sarrera

Hirurogeiko hamarkadan, esportaziorako loreak landatzen hasi ziren Kolonbian, Kolonbiako enpresariak eta Estatu Batuetako inbertitzaileak ituna egin zutelako. Orduetik laurogeita hamarrek hamarkadara arte, lore-hazkuntza era esponentzian hazi zen, eta etekinak eman zituen, baldintza hauek betetzen zirelako: lur emankorra, ur ugari eta argitasun egokia izatea, produktua eskatzen zuen kanpoko merkatu bat egotea, herrialdeko hiriburuaren hurbiltasuna, hirurogeita hamarrek hamarkadan pesoaren balioa gutxitzea eta hurbileko landa-guneetatik iritsitako langile ugari erabilgarri izatea, kostu txikian.

Gaur egun, 6.783 hektarea daude lorez ereinda, eta sailak bost udalerritan daude kontzentratuta: Madriden, El Rosalen, Facatativán, Tocancipán eta Funzán. Hain zuzen ere, Cundinamarcako departamenduan lore-hazkuntzarako erabiltzen den azaleraren % 52 hartzen dute bost udalerriok. Lore-hazkuntzako eragiketa-gastuen ehunekorik handiena (% 55) lan-kostuetara zuzentzen da. 2012. urtean, zuzeneko 80.000 lanpostu eta zeharkako 50.000 lanpostu sortu zituen sektoreak, batez ere emakumeen artean –kontrataturako pertsonen % 60–.





Lore-hazkuntzako ugazaberia Kolonbiako Lore Esportatzaileen Elkartearekin (Asocolfloresekin) bat eginda dago. Elkarte hori esportazioen % 80 egiten duten 272 enpresen ordezkaria da. Konpainia handiak (Elite Flower, Chía taldea, Ipanema eta Hosa, esaterako) Asocolflores elkarteko kide dira.

Lore-hazkuntza kate-maila bat da munduko merkatuan. Produktua kontsumitzen duten herrialdeetan, merkaturatzeko eskaria milimetrora koordinatuta dago, eta egun gutxitan alda daiteke. Ekoizpena lur landuak dituzten herrialdeetan dago, eta berehala aldatzeko moduan egon behar du, eskariak agindu bezala. Negozio honetan, Kolonbiako loreak funtsezko atala dira, bai nazioarteko merkatuan –Kolonbia mundu osoko bigarren lore-esportatzailearik handiena da–, bai bere ekonomian, batik bat esportaziora bideratutako bosgarren produktua delako. Ugazaberiaren arabera, sektorea krisialdian dago gaur egun, batez ere pesoaren balioa handitzen ari delako eta horrek etekinak murriztea ekarri duelako. Hala ere, konpainia batzuk etekin handiak ari dira lortzen, eta enpresa batzuek beste batzuk erosten dituzte. Horrek zalantzan jartzen du enpresariak krisiari buruz agertzen duten larritasuna.

Gaur egun, sektorea enpresa handietan dago zentratuta, eta, azken urteetan, areagotu egin da joera hori: sei enpresak sektore ia osoaren salmenten % 60 biltzen dute. Sozietateen Superintendentziak 332 enpresa erregistratu zituen 2011ko abenduan, zuzeneko inbertsio atzerritarren (ZIAren) hartzaile gisa, besteak beste: Elite Flower, Chía taldea, Sunshine Bouquet eta Queen's Bouquet Network. Gainera, bildutako informazioaren arabera, zuzeneko inbertsio atzerritarra egin da, enpresa batzuek besteak erosteko prozesuan izan diren inbertsio-funtsen bidez.



Fuente: Paéz Sepúlveda (2011)

## 2. Eragin nagusiak

Kolonbiako loreen hazkuntza eredu agroesportatzailearen arabera da. Lehiakortasuna langileen esplotazioan datza, eta horrek ondorio larriak ditu beharginen (batez ere emakumeen) bizitzan. Eredu horren inpaktuak, gainera, dimentsio ekonomikora, politikora eta ingurumenekora ere hedatzen dira.

## 2.1. Dimentsio ekonomikoa

### 2.1.1. Bertako ekonomia-ehuna suntsitzea

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera, lore-hazkuntza zabaldu egin da, eta horrek azizendak larratzeko eta nekazaritza tradizionalerako azalera gutxitzea ekarri du. Laborea aldatu arren, eskualdeko nekazariak ez dira loreen enpresaburu bilakatu. Oso gutxi lortu du hori, hasieran inbertsio handia egin behar baitzen eta oso espezializazio-maila altua eskatzen baitzuen.

Bogotako sabanako udalerrietan, lore-hazkuntza da gaur egungo lan-iturri nagusia, eta, hainbesteko garrantzia hartu du non, ugazaberiaren erabakiekiko mendekotasun handia baitu. Laborantzako lursailak ixteak edo instalazioak beste udalerrri batzuetara (Kolonbiako edo Ekuadorreko beste udalerrri batzuetara) eramateak hondamen soziala eragin dezake eskualdean. Lana alde batera utzita, konpainiek udalerrri horiei egiten dizkieten ekarpen ekonomikoak urriak dira, haiek baizik ez baitituzte ordaintzen: zerga prediala –beren jabetzako lursaila edukiz gero– eta enplegatuen funtsak, udal-kutxetara bideratuak.

### 2.1.2. Delitu ekonomikoak

Agroesportatzaileen (eta, haien artean, loreen enpresaburuen) mozkinak gutxitzean, gobernuak baldintzarik gabeko laguntza eman die, hala arlo ekonomikoan nola politikoan. Pesoaren balio-handitzearen ondorioak arintzeko Kolonbiako gobernuak lore-hazkuntzako ugazabei eman dizkien laguntza ekonomikoak ikaragarriak dira: 2011ko irailean, 300.000 milioi peso (165 milioi dolar) guztira.

Baldintzarik gabeko eta milioi askoko laguntza hori ikertu egin dute, irregulartasunak aurkitu direlako. 2012an, Errepublikako Kontraloria Nagusiak eta Fiskaltzak erantzukizun fiskal eta penaleko prozesuak abiarazi zizkieten lore-hazkuntzako 16 konpainiari eta Kolonbiako Nekazaritza Bankuari, kredituak kudeatzean legez kontrako ekintzak izan zitezkeelako. Izan ere, enpresaburu batzuek beren laboreak utzi eta berriak abiarazi zituzten, finantzaketa publikoari esker. Hau da, zorrak zituzten enpresak likidatu eta enpresa berriak zabaldu zituzten, eta, horrela, ihes egin ahal izan zioten enplegatuekin eta hornitzaileekin beren gain hartuak zituzten zorren erantzukizunari. Gainera, Fiskaltzak ere hainbat konpainia ikertu zituen, Benilda, Colbras Mejía Machado eta Camalena besteak beste, funtsak desbideratu zituztelako.

## 2.2. Dimentsio politikoa

Loreen ugazaberiak ahalmen handia du Kolonbiako gobernuak hartzen dituen erabakietan, eta, *lobby* lan sakona eginez, laguntza ekonomiko eta politikoetarako neurriei eustea lortzeko. Gobernuarekin komunikatzeko duen bide pribilegiatu hori argi geratu zen Estatu Batuekin Merkataritza Askeko Ituna sinatzeko prozesuan, orduan zuzeneko *lobby* egin baitzieten Estatu Batuetako biltzarkide demokrateri, merkataritzako akordioa arinago onartu eta loreei ezarri nahi zizkieten zergak hedatzeko.

Lore-hazkuntzako enpresa-arloaren eta arlo politikoaren arteko harremana ere ikertu da, irregulartasunak izan zitezkeelako. Ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu kreditu publikoen





onura jaso zutenen % 40k nekazaritzako ministro ohi Andrés Felipe Ariasen kanpaina finantzatu zutela.

## 2.3. Dimentsio soziala

### 2.3.1. Emakumeen lan – eta sindikatu-eskubideak

Lan-erreformen bidez, lore-hazkuntzako industriak merkatuko beharrianen arabera eta gutxi ordainduta lor ditzake enplegatuek. Gainera, produktuaren salmenta gehienak urte-saso jakin batzuetan biltzen dira, hau da, goi-denboraldian: San Valentin egunean, amaren egunean, esker onezko egunean eta Eguberrietan. Horrenbestez, azpikontratazioa izan da lore-hazkuntzan gehien hazi den lan-politiketako bat, errentagarritasun handia lortzea ahalbidetzen baitu, kostu handirik gabe kontratatzeko eta kalera botatzeko malgutasuna oinarritzat hartuta.

#### **Soldata, pentsioen ordainketa eta osasuna**

Behin-behinekotasuna, soldata, eta osasuna eta pentsioak estaltzen dituzten enpresa-kotizazioak ez ordaintzea izaten dira Untraflores sindikatura eta Cactus korporazioko aholkularitza juridikora iristen diren demanda gehienen arrazoa. Lehenak, behin-behinekotasunak, gora egin du: egungo emakume langileen antzinatasuna hamar urtetik beherakoa da, lehengoaren erdia. Egiten ari diren kontratu-mota da behin-behinekotasuna handitzeko arrazoietakoa bat: gehienak “bukaera finkoko” kontratuak dira, hau da, aldi baterakoak, eta gehienetan urte baterako. Goi-denboraldian, kontratuak hilabeteko iraupena izan dezakete.

Soldata baxua da funtsezko beste eragile bat, emakume langileei (gehienbat etxeko andreak diren amei) etxea eta ohiko gastuak ordaintzeko behar adina segurtasun izatea galarazten baitie. Izan ere, gizon eta emakume langileek Kolonbian finkatuta dagoen gutxieneko soldata –616.027 peso (231,6 euro) 2014an– jasotzen dute; eta, sindikatuen eta galdetutako biztanleen arabera, kopuru hori ez da aski herritarrik behartsuenen familiako oinarritzko saskiko gastuak estaltzeko. Familiako sarrerak pixka bat handitzeko konponbide gisa, langileek aparteko orduak egiten dituzte sistematikoki, eta atsedean hartzeko egunetan ere lan egiten dute. Egoera hori larriagoa da emakumeen artean, lore-hazkuntzaren arloan gizonen eta emakumeen artean soldatan dagoen arraila dela eta. Bereizkeria, baina, ez dugu soilik soldataren arrailean sumatuko, kontratazioa egiteko unean ere argi agertzen baita, haurdunaldi-testak egiten direnean.

Azkenik, osasuna eta pentsioak ordaintzean izaten den iruzurra aipatzen da langileek aurkeztutako demandetan. Untraflores sindikatuko presidente ohi Aidé Silvaren eta egungo presidente Lydia Lópezen arabera, batzuetan enplegatuek ordaindutakoaren erdia ez da erretiroa kotizatzea bideratzen, eta, horren ordean, azpikontratak edo ugazaberiak poltsikoratzen du.

#### **Lanaldiak luzatzea**

Lore-hazkuntzaren arloko langileen ohiko lanaldia –goi-denboraldia ez denean– 48 ordukoa izaten da asteen, asteko sei egunetan banatuta. Alabaina, lehen aipatu dugunez, aparteko orduak ohiko ordutegiaren zati bat dira honezkero, eta atsedeen-egunak ere ezabatu egiten dira.

Egun batean ere atsedetik hartu gabe lanean emandako denbora kateatu, eta hilabeteetan luza daiteke, Nelly Guevarak azaltzen duenez: “Nik 4 urte eman nituen, jaiegun, igande... bakarra hartu gabe”.

Goi-denboraldian, lanaldia 10 edo 12 ordu ingurukoa izaten da egunero; baina, argitalpen batzuen arabera, uzta ondoko emakume langileek 20 edo 22 ordu ere ematen dituzte lanean. Benilda enpresako langile ohi Ofelia Gómezek argi azaldu ditu bere lanaldi luzeak, lekukotasun honetan: “Goizeko seietan sartzen nintzen, baina ez nekien zer ordutan aterako nintzen. Kontua da, ateratzeko aldatzen ari nintzela, berriz deitzen zidatela, aparteko eskaera bat iritsi berri zelako, eta nahitaez itzuli behar nuen... Lan horrek esklabo bihurtzen ninduen”.

### **Laneko erritmoa biziagotzea**

Enpresa-etekinak murrizten ari direnez, enplegatuen kopurua gutxitu egin da, eta berotegietan pertsona bakoitzari eskatzen zaion produktibitatea handitu. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, langile batek 8 ohe –landatutako lore-ilara– bete behar zituen egunero; laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, 42 ohe, eta, gaur egun, emakume langileek diotenez, 60 ohe edo gehiago hartu behar dituzte beren gain egunero. Aurrerapen teknologikoei esker, produktibitateak gora egin du; baina, hein handian, lan-erritmoa biziagotzearen ondorioa da hazkuntza hori. Lan-baldintzak gogortu egin dira, eta ugazaberiak justifikatu egin du, enpleguei eusteko ezinbestekoa dela argudiatuta.

Emakume langileak, aldiz, ez datoz bat horrekin. Herrera elkarteko emakumeek honela diote: “Esportazio-maila ez da txikitzen, eta (lur landuak) Kolonbiako beste alde batzuetara hedatzen ari dira. Krisia lana gehiago malgutzeko aitzakia besterik ez da”. Lan-zama handitzeak zuzeneko eragina du langile horien errentagarritasunean: handitu egiten du. Polo Democrático Alternativoko senatari Jorge Enrique Robledoren arabera, azken zazpi urteotan, errentagarritasunak % 36 egin du gora.

Bestetik, krisiarekin zuritu egiten dira auzi asko: kaleratzeak, konpentsaziorik eta likidaziorik ez ordaintzea, soldatak, garraioa eta abar. Horixe gertatu da Floramérica, Flores de la Sabana, Benilda, Flores de las Indias eta beste batzuekin.

### **Laneko osasuna**

Loreak lantzean, uzta biltzean eta uzta bildu ondoko prozesuan, gorputzak jarrera estatikoak hartu behar ditu luzaroan –makurtu eta belaunikatuta ereiterakoan, eta zutik ernamuinak kendu eta zurtoin nagusia jartzerakoan–, mugimendu errepikakorrak egin behar ditu –artaziz ebakitzean– eta agrokimikoak eta tenperatura altuak jasan behar ditu. Bogotako Negozioak Kudeatzeko Eskola Unibertsitateko irakasle eta mediku John Alexander Benavidesek dioenez, lanaren egungo antolakuntzaren eta lana malgutzearen ondorioz, langileek denbora gehiago eman behar dute osasunerako kaltegarriak diren baldintzen eraginpean. Estatistikei begira, giharrak eta hezurak kaltetzen dituzten gaitzak dira hedatuena.

Izan ere, ebakitzeko ardua duten taldeak 8 ordu eman dezake zurtoinak ebakitzen –edo 12 ordu goi-denboraldian–, orduko 380 edo 400 zurtoin ebakitzen. Mota horretako eskakizunak agertzen dira uzta bildu ondoren ere, emakume langileek 400 eta 600 zurtoin inguru antolatu



behar baitituzte orduko. Oso ezagunak dira lan errepikakorrak osasunean dituen ondorioak. Besteak beste, karpoko kanalaren sindromea nabarmendu behar da: 1999. eta 2009. urteen artean, hori izan zen Kolonbian gehien azaldu zen lan-gaixotasuna, eta lore-hazkuntzan atzeman zituzten kasu gehien, hain zuzen, erregistratutako kasu guztien % 19.

Lore-hazkuntzan ekoizteko izaten den moduak ere kalteak eragiten ditu ongizate psikosozialan, batez ere emakume langileengan. Herrera elkartearen sartutako emakume langile ohiek eta langileen alabek onartzen dutenez, langileek presio handia jasaten dute, eta, batzuetan, jazarpena eta umiliazioa ere bai. Cactus korporazioaren aholkularitza juridikoaren hitzetan, jazarpen-kasu batzuetan, ondorioak salatzaileak nozitzen ditu, ez jazarleak.

Azken urteotan, lanak egonkortasuna galdu duela eta enpresak itxi direla ikusita, langileen lan-etorkizunaren gaineko ziurgabetasuna areagotu egin da, eta horrek beldurra piztu du, lanetik kanporatua izateko, ordutegiak aldatzeko eta lansariak ez jasotzeko beldurra.

### 2.3.2. Genero-desberdintasunak

#### **Ordaindutako lanetik ordaindu gabeko lanera**

Emakumeek lanaldian jasaten duten presioari, etxean duten erantzukizuna gaineratu behar diogu. Intentsitate handiko lan batetik atera eta ordaindu gabeko baina intentsitate handiko beste lan batean hasi behar dute: janaria prestatzen, etxea garbitzen, familia zaintzen eta abar. Enpresa batzuek malgutasuna ezarri arren, emakumeek ez dute malgutasunik beren denbora antolatzeke, batez ere goi-denboraldietan, hamabi ordu ere eman baitituzkete lanean, eta, lan horretatik atera ondoren, etxeko lanekin hasi behar baitute. Horrela, emakumezko langileen osasun psikosoziala larriki hondatzen da, eta horretan zerikusi handia izaten dute etxean dituzten erantzukizunek.

Seme-alaben zaintzaz eta hezkuntzaz arduratzeko baimena lortzeko izaten den zailtasunak ere eragin handia izaten du, estresa sortzen baitu emakume langileengan. Azterketa batzuen arabera, lan-arauetan ez dago baimenei buruzko politikarik, etxeko eta lantegiko lanak bateratu ahal izateko. Baimena lortzeko, negoziazio pertsonala behar da, eta aparteko onura moduan hartzen da. Gainera, enpresei ez die arazorik sortu behar, eta huts eginez egingo ez den lana aurreratu egin behar da.

#### **Lore-hazkuntzak seme-alabengan duen eragina**

Langileek lore-hazkuntzan lanean jarraitzeke duten kezka eta motibazio nagusia seme-alabak zaintzea da, eta aukerak sortzea hurrengo belaunaldiek lan berean aritu behar izan ez dezaten. Alabaina, askotan, zailtasun handiak izaten dituzte ikasketekin jarraitu eta prestakuntza akademiko hobea lortu ahal izateko. Hona hemen oztopo nagusiak: sarrera aski ez izatea, lan-eskaintza dibertsifikaturik ez egotea, udalerrri askotan dagoen langabezia, alaba nagusiek batez ere etxeko erantzukizunak beren gain goiz hartu beharra eta helduek hezkuntza-prozesuan laguntzerik ez izatea. Goi-denboraldian, amek ordu gutxi batzuk baizik ez dituzte ematen etxean, eta, beraz, txanda izaten da zaintzan. Amek alaba nagusien esku uzten dituzte txikienen zaintza eta etxeko lan batzuk egiteko ardura. Manablanca zentroan galdetutako ikasleen artean, erdia anai-arreba txikiak zaintzeaz arduratzen zen ama ez zegoenean. Horiek horrela, erru-sentimendua pizten da

amen baitan –eredu patriarkalari jarraiki, amen erantzukizunak alaben esku geratzen dira–, eta tentsioa agertzen da familian. Horrenbestez, alabek askoz okerrago dute eskolan errendimendu ona izateko, eta, ziurrenik, nahitaezko hezkuntza bete ondoren, ez dute ikasketekin jarraituko. Prestakuntza baxua eta lore-hazkuntzara mugatutako lan-eskaintza izanda, etorkizuneko belau-naldiek egonkortasunik eza nozitu beharko dute.

## 2.4. Ingurumeneko dimentsioa

Loreen hazkuntza intentsiboan, ur kantitate handia behar da. Hortaz, laurogeiko hamarkadan Bogotako sabanatik zabal hedatu zenez, akuiferoak gehiegi ustiatu ziren, eta agrokimikoz kutsatu ere bai. Horrek ezin eutsizko egoera ekarri zuen: gero eta zailagoa zen ura eskuratzea eta baliabide publikoak inbertitu behar ziren herritarrei ur-hornidura bermatzeko. Loreen ugazaben elkarteko enpresa kideek diotenez, erabiltzen duten uraren % 53 euri-ura da, eta asko murriztu dute akuiferoen erabilera. Hala ere, eskaria oso handia da oraindik –5.746 metro kubiko hektarea eta urte bakoitzeko–, ekoizpena maximizatu ahal izateko berotegiko sail ureztatu bati dagokion eran.

Horixe gertatzen da, hain zuzen, agrokimikoekin. Zenbait protokolo finkatu dira hondakinak kudeatzeko eta ur edo hondar kutsatuak isurtzean sortutako kutsadura gutxitzeko. Nolanahi ere, ingurumena gainbegiratzeko zeregina besteak beste Florverde, Global Gap eta Rainforest Alliance erakundeen aurrean erantzuten duten enpresa pribatuen erantzukizuna da. Hortaz, ezinezkoa da loreen ugazaberiak emandako informazioa egiaztatzea.

### 2.4.1. Langileen osasuna

Landareen hazkuntza eta loraldia bizkortzeko eta, era berean, monolaborantza intentsiboa egoera ezin hobean izateko, oinarri-oinarrizkoa da produktu kimikoak modu intentsiboan erabiltzea. Alabaina, horrek, kutsadura sortzeaz gain, larriki kaltetzen du berotegian aritzen diren emakumeen eta gizonen osasuna, intsektizidak, fungizidak, herbizidak, ongarriak, hormonak eta produktu sintetikoak erabili behar baitituzte egunero.

Benavides doktorearen esanetan, aldaketa sumatzen da laborantzan erabilitako gai-motan, baina konposatu berriak “ez dira egiaztatu, duten toxikotasun kronikoa ikertzeko, eta hori arazo handia da: langileak denbora batez aritzen dira lore-hazkuntzan, baina gero beste sektore batera jotzen dute, eta ez dira gai horien arriskupean egoten. Handik hogeitaz urtera, tumorea agertzen zaie, edo alterazio neurologikoa, edo beren ondorengoek leuzemia dutela aurkitzen dute”. Mota horretako gaitzak gai toxikoen eraginpean egon eta handik denbora luzera agertzen direnez, zaila da gaitzaren eta gai toxikoaren arteko harremana aurkitzea eta erantzukizunak eskatzea. Bestalde, azterlan gutxi egin dira pestizidek langileei minbizia eragiteko duten ahalmena ikertzeko, eta hori ere ez da lagungarria.



Lore-hazkuntzaren bilakaeraren ondorioak Bogotako sabanaren enpresa, langile eta udalerrien gain			
	Enpresa	Langileak	Udalerriak
<b>Internazionaliazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nazioarteko enpresa-taldeak.</li> <li>- ZIAREN sarrera.</li> <li>- Merkataritza-akordioak: legezko eta muga-zergazko abantailak nazioarteko merkataritzarentzat.</li> <li>- Lan-kostuaren flexibilizazio eta murrizketa ahalbideratzen duten legeak.</li> <li>- Ingurumen- eta gizarte-desregulazioa.</li> <li>- Teknologia negozio globalera zuzenduta.</li> <li>- Produkzio-era malguak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Malgutasun-maila handiko lanaren sorrera.</li> <li>- Behin-behinekotasuna, erabat libre-egotea enpresaren beharrezko beharrezko, aparteko orduen, jai egunen eta likidazioen ordainketa ezaren ondoriozko sarrera-murrizketa.</li> <li>- Azpikontratazioak.</li> <li>- Gastuen gorakada merkantilizatutako zerbitzu publikoetan.</li> <li>- Ordaindutako zein ordainik gabeko lan-zama handia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Esportazioa zuzendutako sektore batekiko menpekotasuna enplegurako eta jarduera ekonomikorako.</li> <li>- Biztanleriaren eskaerak gizarte-eraginetaz arduratzeko: haurren gaineko zaintza falta, gaixotutako langileen zaintza.</li> <li>- Zerga-sarreraren gabezia.</li> <li>- Kutsadura.</li> <li>- Ura eta lurrraren gaineko presio altua.</li> </ul>
<b>Krisia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irabazien murrizketa diru-truke kaltegarriaren ondorioz.</li> <li>- Sektorearen berregituratzea: enpresa gutxiago eta handiagoak.</li> <li>- Laguntza publikoa: kreditu abantailatsua eta diruz-laguntzeko moduko dolarretan, esportazioari babesa.</li> <li>- Enpresen likidazioa errazten duten legeak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Produkzio-erritmoak areagotzea.</li> <li>- Ondorioak lan-osasunean.</li> <li>- Ez kotizatzeagatik, edo behar beste ez kotizatzeagatik gizarte babesetik baztertzea.</li> <li>- Sindikatu independenteen deslegitimazioa areagotzea.</li> <li>- Langabeziari beldurra eta langileen antolaketaren ahulezia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresak ixtearen ondoriozko langabezia.</li> <li>- Gizarte-krisien arriskua.</li> </ul>
<b>Kalitate-zigiluen ezarpena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sinesgarritasunaren berreskurapena.</li> <li>- Kritikak ezereztea.</li> <li>- Merkatu berrietara irekitzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Benetako eragin txikia produkzio-moduetan.</li> <li>- Toxikotasun akutu gutxiago eta arreta-neurri gehiago dauzkaten agrokimikoen erabilera.</li> <li>- Filantropia ekintzak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Akuiferoen gaineko presioaren murrizketa.</li> <li>- Filantropia ekintzak.</li> </ul>
<b>Estatu mailako legeria</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berdintasunarekin lotutako ziurtapen-programa: adostasuna eta borondatezkotasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Benetako aplikaziorik gabeko legeak.</li> <li>- Salaketa- eta zigor-tresna efektiboaren gabezia.</li> </ul>	

Iturria: Gure elaborazioa.



Huerto ecológico en la casa de la Asociación Herrera

### 3. Lan eta bizitza duinaren aldeko borroka: sindikatuak eta erakunde sozialak

Langileen gizarte – eta lan-inguruneak ahultasuna eta zailtasunak sortzen ditu, estatuaren eta enpresen aurrean beren oinarrizko eskubideak babesteko. Familiaburu diren amei dagokienez, ahultasuna biderkatu egiten da. Hala ere, zailtasunak zailtasun, sindikatuen antolakuntza, salaketak, grebak eta protestak erabiltzen dituzte, beren eskubideak aldarrikatzeko.

#### 3.1. Lan-eskubideen babesa: aurrerapenak eta zailtasunak

2009ko irailean, Benilda enpresako langileek konpainiako instalazioak hartu zituzten, eta greba mugagabea egiten hasi ziren. Soldatak eta osasunerako eta erretirorako kotizazioak ordaintzen ez zizkietela ikusita, enpresan enplegatuta eta Sintrabenilda sindikatuaren antolatuta zeuden languek mobilizazioak egitea erabaki zuten. Grebak 62 egun iraun zuen, eta, bitartean, ibilaldiak eta elkarretaratzeak egin zituzten Facativá enpresako bulegoen aurrean, azkenean ugazaberiak ordaintzeko hitza eman zuen arte. Hurrengo urtean, 2010eko uztailaren 7an, Riegel Farms enpresak azpikontrataturako langileek lursaila blokeatu eta 22 egunez kanpaldia egin zuten enpresako sarreran, gizarte-segurantzako kotizazioak, materialen zuzkidurak, atzeratutako ordainketak eta bestelakoak ordain ziezazkieten eskatzeko.

Loreen Langileen Batasun Nazionala (Untraflores) lore-hazkuntzan dagoen klaseko sindikatu independente bakanetako bat da, eta hainbat erakunde sindikal hartzen ditu barne, adibidez: Sintrabenilda, Sintraguacará eta Asoindias. Sindikatu horrek emandako datuen arabera, “1.000 kide baino gehiago dituzte, gehienak emakumeak (% 70)”. Dena dela, haien kalkuluen arabera, emakume langileen % 1 baino ez da sindikatu bateko kide.

Sindikatuetan langile gutxi kidetzea sektoreko baldintzen ondorioa da, lan-eskubideen alde egiten duten emakume langileak geldiarazi egiten baitituzte. Horrez gain, oztopo hauek daude: lan-egoera areago ezegonkortu duten lan-erreformak, sindikatuen aurkako politikak, sindikatu independenteen kopuru txikia eta estatuak langileen eskubideen urraketa ez gainbegiratzea eta zorrotzago ez kontrolatzea. Horrek guztiak askatasunez eta inolako zigorrik jaso gabe



aritzeko aukera ematen die enpresaburuei, lan-esplotazioko jarduerak egin arren. Eta, logika horri jarraiki, babesgabetasun handia sortzen da, eta beldurra ere bai, zehapena jasotzeko eta lanetik kaleratua izateko beldurra.

Bogota-Cundinamarçako CUT zentraleko Emakumearen Saileko zuzendari July Gonzálezek hitz gutxirekin laburbiltzen ditu zailtasunok:

“Emakume sindikalistaren jarduerak kostu pertsonal handiak izaten ditu: familiarekin egon beharrean denbora politikari eskaintzen diola aurpegiratzen zaio. Gainera, jarduera hori estigmatizatuta dago. Kolonbian, hainbat arrisku dakartza berekin, eta horiek ezinbestez onartu behar dira: jazarpena, kriminalizazioa, enpresak ixteko eta langabezia ugaltzeko erantzukizuna leporatzea...”.

Hala ere, sindikatuetan edo bestelako elkarteetan antolatuta dauden emakumeek lanean jarraitzen dute, lan-eskubideak babesteko prozesuak indartzearen eta agerian uztearen, ekintza kolektiboaren bidez hainbat gauza lor daitezkeela: ahalduntzea, beldurrari aurre egiteko behar diren babesa eta segurtasuna, eta lanean tratu duina eta bidezkoa jasotzea eskatzeko mobilizazioa.

### 3.2. Hautabideak eraikitzeke sareak eta erakunde sozialak

Otsailaren 14a, San Valentín eguna, goi-denboraldia da loreak ekoizten dituzten lursailetan, orduan pilatzen baitira esportatzeko salmentak, orduan izaten baitira biziago lanaldi luzeak. Egun horretan sortu zuen Cactus korporazioak lore-hazkuntzako langileen eguna. 2001. urtean egin zen lehenbiziko aldiz, lore-hazkuntzako langileen egoera Bogotako sabanatik kanpo agerian uzteko, langileek sektoreari egiten zioten ekarpena onartzeko eta beren bizitzaren berri emateko. Kolonbiako hainbat erakunde sozialek eta sindikatuk egun enblematiko hori hartu dute mobilizazio-egun gisa, eta, gero, beste herrialde batzuetara hedatu da, esate baterako: Ekuadorrera, Austriara eta Ingalaterrara. Horregatik, lore-hazkuntzako langileen nazioarteko egun gisa finkatu da.

Erakunde sozial asko aritzen dira lanean, arlo kolektiboan, lore-hazkuntzako emakume langileen eta langile ohien bizitza-kalitatea hobetzeko, eta, era berean, enpresa-sektore horretan izaten diren gehiegikeriak salatzeke. Horixe da Herrera elkartearen kasua. Lore-hazkuntzako emakume langile ohiak biltzen ditu gehienbat, lore-hazkuntzako lana utzi ondoren beren errealitateaz ohartzen hasten baitira.

Prestakuntza eta laguntza juridikoa oso estrategia garrantzitsuak dira langileek nozitzen duten esplotazio-mailaz hobeto jabetzeko. 1995etik hona, Cactus korporazioak ardatz horiek landu ditu, eta, horrez gain, nazioartean salatzeke kanpainak sustatu eta laborantza horiek gizartean, lan-munduan eta ingurumenean dituzten ondorioak ikertu ditu. Bestetik, Cactus korporazioa beste erakunde batzuekin elkartu da eta sareak eratu ditu, lurraldea eta eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak babesteko mobilizazioak eta eragin politikoa bultzatzearen. Helburua da eskubideak bete daitezzen eskatzeko guneak sortzea, Bogotako sabanako emakumeek bereziki nozitzen duten indarkeria fisiko, emozional eta ekonomikoari aurreteke eta hautabide solidarioak eta askatzaileak eraikitzeke. Xede horrekin, Bogotako



Sabanako Emakumeen Herri Sarea eratu dute. Sabanako hainbat emakume-elkarte bildu dira barruan, eta guneak sortu dituzte, emakumeen eta gizarteko beste sektore batzuen proposamenak biltzeko, eta eskualdean ezarri dieten garapen-eredua era kritikoan aztertzeko. Horri esker, ekonomia eta truke solidarioko proiektu autokudeatuak jarri dituzte abian, elikadura-burujabetzari loturik. Hasi berriak dira oraindik, eta, beraz, ezin dute bakarrik iraun, baina tresna egokia egituratu dute, beste mota bateko lan-harremanak eduki ahal izateko, guztiok egindako lanean eta soilik diruzkoak ez diren harreman ekonomikoetan oinarrituta.





## **Bolivia**

Erauzketako industrien mugak:  
Aguaragüeko biodibertsitatearen  
arazoa





**Lurraldea:** Tarijako departamendua (Bolivia).

**Sektore ekonomikoa:** hidrokarburoak (petrolioia eta gasa).

**Enpresak:** Eastern Petroleum and Gas, Petrobras, YPFB, Petroandina, Técnicas Reunidas, Repsol.

**Eraginak:** ingurumenekoak eta kulturalak.

Dimentsioa	Eraginak	Deskribapena
Ingurumenekoa	Airea, ura eta lurra kutsatzea.	Petrolioia erauzteko jarduera zaharrak eragindako ingurumeneko pasiboak eta parkearen % 72,5 petrolio-prospekzioak egiteko ematea.
	Biodibertsitatea galtzea.	Landare – eta animalia-espezieen galera.
	Lurraldea suntsitzea.	Ur-iturburuak desagertzea, basoak soiltzea eta kolonizazioak aurrera egitea.
Kulturala	Herri indigenen eskubideak.	Komunitateen arteko zatiketa eta liskarrak, ura eskuratzeko gatazkak, gazteen emigrazioa.

## 1. Sarrera


Bolivia Andeen eta Amazoniaren arteko eskualdean dago, eta planeta osoan natura-aberastasun gehien duen horietako bat da. Horri esker, herrialdea egoera pribilegiatuan dago biodibertsitateari dagokionez. Lurraldeko ingurumen-gradienteen zabaltasunak areago indartzen du aberastasun hori, ekosistema ugari baitituzte, eta, barruan, era askotako espezieak. Horiek horrela, planeta osoan aniztasun biologiko gehien duten 16 herrialdeen zerrendan dago Bolivia. Herrialde horietako lurrak ezagutzen ditugun espezie guztien % 70en habitata dira, gutxi gorabehera.

Nolanahi ere, herrialdean ia 60 eremu babestu (besteak beste, 22 parke nazional) egon arren, aurrera doan garapen-eredua esportatu nahi diren natura-baliabideen erauzketan oinarritzen da, eta, hainbat hamarkadatan, eredu hori mehatxu larria izan da natura-biodibertsitateari eta –ondareari begira. 2007. urtetik aurrera, gobernuak hartutako erabakien ondorioz, babestutako

eremuak zabaldu egin dira, petrolio-jarduerak egiteko, eta, tradizioz basoak bete izan dituen lurretan, esportaziorako monolaborantzak sustatu dira, soja transgenikoarena batez ere. Era berean, ur-iturburu estrategikoen kalterako, meatzaritzako jarduerak zabaltzea erabaki du estatuak, eta lehentasunezkoztat jo du, inguruan goraka ari diren herrialdeetako ekonomiek eskatzen duten esportaziorako azpiegitura (errepide biozeanikoak eta hidroeletrikoak, besteak beste) eraikitzea. Eredu horrekin, kontserbazio politikak erauzketako ekonomiako interesen mende geratzen dira, eta presio eta mehatxu larriak agertzen dira, ekosistemen eta aberastasun biologiko ugariaren gainean.

Tarijako Gran Chaco eskualdea eta, bereziki, Aguaragüeko Parke Nazionala eta Kontrol Integraturako Eremua (PNAMI) barne hartzen duen lurraldea (bai eta bere eraginpeko aldea ere) askotariko natura-baliabide ugari dituen eremua da. Bereziki, hidrokarburoetan da aberatsa, eta, horren ondorioz, presio handia jasan du azken ehun urteotan. Jarduera horiek ere eragina eta inpaktua izaten dute inguru horretan bizi diren nekazarien komunitateetan eta guarani eta weenhayek indigenen herrietan. Petrolioarekiko interesaren ostean, gasaren bilaketa etorri da gero. Izan ere, lehen ez zen energia hori ustiatzen, baina gaur egun ezinbestekoa da Boliviarentzat, esportatzen duen lehengai nagusia baita, hain zuzen, guztizko kopuruaren % 60 inguru hartzen baitu. Ia bi hamarkadaz estatuko enpresak pribatizatzen aritu ondoren, Hego Amerikako hego konoa hondatzen duen krisialdi energetikoak, gas naturalaren nazioarteko merkatuen aldatetek –baliabide horren prezioan eragiten baitute– eta muturreko beste eragile batzuek zehazten dute Aguaragüeko ikuspegia.

Aguaragüe PNAMIa 2000. urtean sortu zuten, eta 10.8307??? Ha-ko azalera du. Tarija departamenduko Gran Chaco eskualdean dago, Yacuiba, Caraparí eta Villamontes udal-jurisdikzioetan. Parkeko mendilerroan eratzen diren ibaiek nekazaritzako jarduerak egiteko aukera ematen dute, eta urez hornitzen dituzte parke barruan eta bere eraginpeko aldean dauden komunitateak (gehienbat, guarani eta weenhayek indigenen eta nekazarien komunitateak). Boliviako baso tucumanoko eta mendilerroetako Chaco ekoeskualek eta Gran Chacori dagokion ekoeskualek bertan egiten dute bat, trantsizioko alderdia da eta.



Fuente: VV.AA. (2011).

Aguaragüe PNAMI parkeak (batez ere Yacuíba eta Villamontes herrien ondoko alderdiak) argi islatzen du erauzketa hedatzeko izan den prozesua, eta horrek ingurumenaren gainean eta herri indigenetan izan dituen ondorioak. Ur, agregakin, hidrokarburo eta baso-baliabideen ustiapena, eta ustiapen horiei lotuta sortu diren azpiegiturak dira parkearen biodibertsitateari begira dauden mehatxu nagusiak.


Aguaragüe PNAMIko hidrokarburoak lehenago ere ustiatu izan dituzte –XX. mendeko hogei-ko urteetatik hirurogeita hamarreko hamarkadara arte–; baina, gaur egun, erauzketako foku-lurraldeetako bat da parkea, oraingoan, gazez hornitzeko eta hegoaldeko konora (Brasilera eta Argentina) esportatzeko. Aurreko ustiapenaren ondoko garaian –orduko ehunka ingurumen-

pasibo ikus ditzakegu oraindik– eta 2010. urtera arte, Aguaragüe funtsezkoa izan zen erauzketaren arloan, San Alberto, Sábalo –Petrobrasen esku– eta Margarita –Repsolen esku– megaeremuak hurbil zituelako, eta Brasilerara eta Argentinara bideratutako gasa garraiatzen zuten gasbideak bertatik igarotzen direlako. Kontu horiek ez dira hutsalak, hamaika inpaktu eragin baitituzte gozartearen eta ingurumenaren gainean. Nolanahi ere, 2010. urtean, 0676 Dekretua ateratzeaz bat, parkeko azaleraren % 75etik gora ustiatzeko bidea eman zen. Orduantxe jarri ziren arriskuan mendilerroa eta parkearen eta horren eraginpean bizi diren komunitate indigenen eta nekazarien bizitza. Orain dela gutxi iragarri da, parkean babes gehien duen aldean (Sananditan) dagoen eremu zaharretako batean erreserba handiak izan daitezkeela, Margarita eremu ospetsuak dituenak baino handiagoak. Hortaz, parkea interes handiko gunek bilakatu da hidrokarburoen arloko transnazionalentzat.

Gainera, inguru horretan kokatu da Boliviako proiektu energetikorik garrantzitsuenetakoa: likidoak bereizteko Gran Chaco instalazioa, tamainari eta eragiketei erreparatuta Latinoamerika osoko hirugarren instalazioa izateko proiektatua, Técnicas Reunidas eraikitzen ari dena.

## 2. Eragin eta mehatxu nagusiak

PNAMIAN iraupen luzeko zenbait eragin ikus ditzakegu. Nekeza da haien tamaina eta konplexutasuna kalkulatzeko, baina eragina dute parkean eta ingurumarietan bizi diren komunitateetan; hauek dira, besteak beste: ura eta lurra kutsatzea, ur-iturburuak agortzea, komunitateak lekualdatzea, bizirauteko iturriak agortzea, aldaketa kulturalak herri indigenengan, liskarrak eta hausturak mugimendu indigenen artean, ustelkeria politikoa, salatzaileak kriminalizatzea, legerian atzera egitea eta lan-arloko gehiegikeriak.



## 2.1. Ingurumeneko dimentsioa

### 2.1.1. Airearen, luraren eta uraren kutsadura

Aguaragüe ur-iturburutik lortzen da Chaco probintziako uraren % 70. 30 komunitate (10.000 lagun inguru) bizi dira bertan, eta, beraz, egoki arautu behar dira lur-zuzkidura eta basoak soiltzeko jarduerak. Paradoxikoki, parkean gasa ateratzeko jarduerak berrabiaraziz gero, ingurumeneko parametro horiek –ura kutsatzea, ur-iturburuak lehortzea, lurra kutsatzea, biodibertsitatea galtzea eta biztanleek lurraldez aldatu behar izatea– izango dira kaltetuenak.

### **Petrolioaren erazteko lehengo jarduerak ingurumenean utzitako pasiboak**

Petrolioaren jarduerak hainbat ingurumen-pasibo utzi ditu Aguaragüe parkean, besteak beste: petrolio-putzuak, kanpamentuak, biltegitratzeko azpiegiturak, hodiak eta makineria. Horrez gain, jatorrizko paisaia erabat aldatu du, zelaiguneak berdindu eta bideak eta bidezidorrak zabaldu baititu hidrokarburoak bilatzeko. Ingurumeneko arazorik handiena 1926an sortu ziren eta bertan behera utzita dauden aspaldiko jardueretako petrolio-putzuek eragiten dute. Ingurumeneko pasibo horiek laurogeita hamarreko hamarkadara eta 2000. urtera arte jardunean egon ziren alderdietan daude pilatuta.

Hain zuzen, Caigua, Sanandita, Los Monos eta mendilerro osoan barreiatuta dauden beste eremu batzuetan pilatutako antzinako petrolio-putzuek eragiten dute ingurumeneko arazorik handiena. Zaila da putzu horietaraino iristea, eta parkea kudeatzeko ardua duten agintariek ez dute haiei buruzko informazio gehiegi bilduta. Kalkuluen arabera, 66 petrolio-putzu daude bertan behera utzita, eta efluente eta gas kutsatzaileak sortzen dituzten gune larriak dituzte. Horietako asko ez zituzten itxi, eta ez da isurketei eusteko praktkarik egin, are gutxiago lokatzak edo efluenteak tratatzeko jarduerarik. Hortaz, oraindik ere hidrokarburoak isurtzen dituzte ingurumenera, batere kontrolik gabe, eta uholdeek eta haizete bortitzek gai kutsatzaileak garraiatu eta barreiatzeko arriskua dago. Arazo horrek ondoeza sortu zuen komunitateetan, eta, ondorioz, gehienbat guarani herriak borroka luzea jarri zuen abian, arazoa konpondu nahian.

#### Pasivo ambiental Aguaragüe



Fuente: CEDIB.

#### Pasivo ambiental Aguaragüe



Fuente: CEDIB.

Deskribatutako hori guztia ikusita, Pilcomayo Ibai-arroko Plan Zuzendari eta Kudeaketa Integraturako Proiektuak aholkularitza baten zerbitzuak kontratatu zituen, 2006ko abenduan, Aguaragüeko pasiboak ebalua zitzan eta, informazio horretatik abiatuta, larrizat jotako putzuak ixteko eta konpontzeko planak presta zitzan. Hortik aurrera, eta guarani herriak behin eta berriz eskatu ondoren, SAN X3, SAN 31 eta CAI 8-6 putzuetan esku hartu zen, eta putzuak ixteko lanei ekin zieten 2011n.

#### Kutsaduraren egungo egoera

Gaur egun, 2006-2013 aldirako petrolio-kontratuak sinatu zirenetik, Aguaragüe PNAMI parkeak azaleraren % 72,5 du lotuta, petrolioko kontratuekin, sozietate anonimo misto baten bidez egindako kontratuekin, azterketa-hitzarmenekin eta atzerriko kapitalei emateko erre-serbatutako eremuekin. Esan beharra dago eremu babestu desnaturalizatu bat dela, eta horrek esan nahi du, ez dela kontserbaziorako area bat, hidrokarburoen inguruko jarduerak gauzatzeko inguru bat baizik. Hauek dira parke inguruan petrolioia erauzteko eskubideak dituzten enpresak: Petrobras, Chaco (YPFB), Petroandina (PDVSA eta YPFB) eta Eastern Petroleum.





## Caigua, Los Monos eta Sanandita eremuko arazoa

Gaur egun, Los Monos eta Caigua eremuak Chaco estatu-enpresaren esku daude. Evo Moralesen gobernuak homologatu zituen kontratu horiek Ipar Amerikako Amoco enpresaren garaikoak dira. Horren akzio gehienak 2009. urtean nazionalizatu ziren. Caiguako haitzartean, Caiguako eta aldameneko komunitateak ureztatzeko urez hornitzeko eraiki zen presa baterantz irristatzen dira urak. Hala ere, haitzarte horretako urak hidrokarburo-maila altuak ditu, egin diren azterketen arabera –Quebracho aholkularitzarena, besteak beste–. Azterketa horien argitan, petrolioaren guztizko hidrokarburoek (TPHeK) nabarmen gaiditzen dute indarrean dagoen araudian finkatutakoa.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu beste gai batzuek ere lotura dutela hidrokarburoak ateratzeko jarduerak eragin duten kutsadurarekin, adibidez: metal astunek. Konposatu organiko eta ez-organiko horien metaketa handiek aldatu egiten dute uraren kalitatea. Horixe gertatzen da Boliviako Chaco eskualdean. Klima lehorreko aldea da hori, lehorte luzeak izaten baitira, eta, beraz, ura oso ondasun preziatua da bertan, biztanleek ureztatzeko eta edateko erabilia. Bestetik, airean eta lurtean eragindako inpaktuak aipatu behar dira. Lurtean etengabe izaten dira isurketak, eta hidrokarburoen metaketak oso kezagarriak dira. Faunan eragindako inpaktua ez da gehiegi aztertu, baina, komunitateen arabera, parkean lehen aski ugariak ziren espezieak galdu egin dira, edo nekez aurkitzen dira gaur egun.

Horixe gertatu da Caiguan. Azken urteetan (2012an eta 2013an), petrolioaren arloko enpresek berriro egin dutenez putzuak dauden lekura doan bide bat, orain badago CAI 8 putzuan esku hartzerik, behin betiko ixteko eta behar diren neurri zuzentzaileak ezartzeko. Aldi berean, petrolio-enpresak eta komunitateak akordioa sinatu dute, beste bi putzutan esku hartzeko. Horretaz baliaturik, Chaco enpresa zelaigunea berdintzen hasi da, CAI X10000 putzu berria zulatzen hasteko. Horrek kezka handia piztu du komunitateetan, gehienbat Caiguan, presa kutsatzeko eta jalkinez betetzeko arriskua handitu delako. Izan ere, Chaco enpresak eremu zaharra abiarazteko asmoa du, ekoizteko moduan jartzeko berriz.

Bestetik, Chaco SA estatu-enpresarena den Los Monos haitzartean ere bertan behera utzitako petrolio-putzu asko dago pilatuta, Caiguan bezala. Lurtean, hidrokarburoak ikusten dira, eta, batez ere, Pilcomayo ibaira doan ur-lasterrean –Aguaragüe aldeko ibai-adar nagusietakotzat hartzen da hori–.

Los Monos inguruko putzuetara iristeko bidea suntsituta dago, eta zaila da haraino heltzea. Baina, haitzarte horretan, San Antonio-Sábalo eta Margarita babestutako aldearen mende-baldean kokatutako gas-megaeremuetatik ateratako hidrokarburoak garraiatzeko azpiegiturak daude; horietan, Petrobras eta Repsol enpresek jarduten dute, hurrenez hurren. Hortaz, haitzartea zeharkatzen duten hodiekin goitik behera aldatu dute berezko egoera. Mendilerroan barrena 2.000 metrotik gorako tunela zulatu dute, eta hodia ibai azpitik sartu dute hainbat tokitan. Gero, hormigoizko egiturak egin dituzte areago indartzeko, eta era horretan haitzarteko zati asko asfaltoz estali dituzte. Gasbideak oso arriskutsuak dira, ihesa edo haustura izanez gero oso kutsakorrak direlako; eta horrelako gorabeherak oso ohikoak izaten dira alderdi horretan, hodiekin ez baitiete eusten ez eurite garaiko uholde indartsuei, ez inguruko ezegonkortasun geologikoak eragindako luiziei. Gauzak horrela, ezbeharrak izan dira, eta, zenbaitetan,

larrialdiak ere bai, haitzartetik gai kutsatzaileak barreiatu direlako. Zoritxarrez, gertaera horiek ohikoak izaten dira, eta agintariek ez dute horien berri izaten, baina komunitateek bai.

Bestetik, bertan behera utzitako putzuen metaketarik handiena Sanandita eremuan dago. Hortxe dago, gainera, YPFB enpresak aurreko mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadan bideratutako eraiste-lanen ondorioz bertan behera utzitako findegia. SAN X3 eta SAN 31 putzuak ixteko eta konpontzeko lanak egin dira, inguru horretako kutsadura-iturri nagusiak direlako, SAN 9 putzuarekin batera. Azken horretatik petrolio isurtzen da oraindik, eta bertan dagoen eskola militarrek eta bertako biztanleek energia-iturri gisa erabiltzen dute. Eremu horretan badira jarduera-maila baxuagoa edo hutsala duten baina arrisku-iturritzat hartzeko modukoak diren beste putzu batzuk ere.

Sananditan, petrolio-pasiboen ondorioz kaltetuta egon arren, inguruko jendeguneez haitzartetatik isurtzen den ura erabiltzen dute, lur landuak ureztatzeko eta edateko. Izan ere, parkeko jarduneko zuzendari Danir Vacaren iritziz, aurreko ustiapenen ondoriozko ingurumen-pasiboek kutsadura konplexua sortu dute ur-iturburuetan eta lurlean. Komunitate askok hamarkadak eman behar izan dituzte ura eta lurra kutsatuta. Alde horretako komunitate askok haitzarte horietan egiten dituzte mikroureztatzeko jarduerak. Vacak dioenez, pasiboak itxita, “ura maila onargarrietan egongo da berriz”, eta ez da ez petrolio-isuririk ez gas-ihesik egongo. Hala ere, pasiboak ixteak ez du ezertarako balio, toki horretan askoz ere tamaina handiagoko beste ustiapen bat jartzeko proiektua badago.

Evo Moralesen gobernuak Sananditan azterketak egiteko hitzarmenak sinatu ditu Total eta Easter Petroleum enpresekin; eta, horien ondorioz, Boliviako Legebiltzar Plurinazionalak baimena eman dio Txinako Eastern Petroleum and Gas enpresarekin ingurua aztertze eta ustiatze egin den kontratuari. Parkeko beste alderdi batzuetan ere azterketak eta ikertze eta ustiatze kontratuak ari dira egiten. Horietako bi *Aguaragüe Sur A* eta La Ceiba izeneko eremukoak dira. Petroandina SA enpresa sarbideak egiten eta makineria bertara hurbiltzen ari da dagoeneko. Petroandina SA hauek osatzen dute: Yacimientos Petrolíferos Fiscales Bolivianos (YPFB) eta Petróleos de Venezuela (PDVSA) estatu-enpresek eta National Iranian Oil Company (NIOC) konpainiak.

### 2.1.1. Biodibertsitatea galtzea

Parkeko fauna, landaredia eta egungo kontserbazioko egoera jasotzeko, Kontrol Integralerako Plana prestatu behar da. Hitzartuta dago, baina petrolio-ustiapena berrabiarazi denez, atzeratu egin da. Horrenbestez, hidrokarburoen ustiapenak eragindako presioa gorabehera oraindik ondo dauden fauna, landaredia eta arroak zaintzeko planari ere ezin zaio ekin. Bestetik, bideak zabaltzen ari direnez, isilpeko ehiztariak errazago ari dira sartzen, eta horiek areago murrizten dute erauzte-jarduerak ahuldutako fauna. Guarani Herriaren Batzarreko (APGko) teknikari eta Biodibertsitateko zuzendari nagusi ohi den Pablo Ibáñezek dioenez, orain dela bi hamarkada, fauna – eta landaredi-biodibertsitate handiko kalitatezko 40 ur-iturburu zeuden Aguaragüen; baina, gaur egun, galdurik daude erabat. “Ustiapen berriek suntsitu egin dute parkea, eta sortu dituzten bideak ur-iturburuak hondatu dituzte”, azaldu du. Ez da planik egin, ingurumenaren gaineko eraginak arintzeko eta parkea zaintzeko.



SERNAP zerbitzuko agintariek ez dute baliabide, ekipamendu eta langile aski PNAMI osoa behar bezala kontrolatzeko, eta, beraz, legez kanpoko jarduera ugari egiten dira, egurra, ehiza eta arrantza ustiatzeko.

### 2.1.2. Lurraldea suntsitzea

Alberto Viorelek, Villamontesko udal-zinegotzia eta izen bera duen alderdiko Guarani Herriaren Batzarreko kapitain nagusia denak, honela dio: “Guretzat guarani herriaren lurraldea da parkea. Caigua, Monos, Sanandita... inguruetan dauden petrolio-enpresek eragin larria izan dute ur-haitzarteetan, gure iturburuak kutsatu egin dituzte eta. Ur gezako iturbegiak desagertzen ari dira. Petrolio-enpresen jarduera eta egin diren errepideak dira kalterik handienak. Petrobras eta Repsol enpresek 2002-2003 epealdian zulatu duten 2.200 metroko petrolio-hodiak min handia egin du. Hodi hori zulatzean, Los Monos haitzartearen ur-iturburua suntsitu dute”.

#### Repsol

Repsol enpresak ez du Aguaragüe parkean jarduerarik, baina bere eremurik errentagarri-enetako bat (Margarita eremua) mendilerroan dago. Era berean, Repsol eta Petrobras enpresen gasbideak (Yacuiba-Río Grande izenekoak) Quebrada de los Monos deritzon aldetik zeharkatzen du parkea. Mehargune ikusgarri hori asfaltoz estali zuten gasa garraiatzeko. Yaku Igua Guarani Herriaren Batzarreko kapitain nagusi Jorge Mendozak dioenez, gaur egun lehor dagoen haitzarte hori eskualdeko ur-iturburu nagusietako bat zen. Gasbidea eraikitzeak inpaktu larria izan du gizartean eta ingurumenean, eta, alde horretako guarani eta weenhayek herrien komunitate batzuek diotenez, enpresa harremanetan jarri da beraiekin, hodia zabaldu nahi duelako. Espainiako multinazionalak 16 kontzesio ditu indigenen lurraldeetan eta Boliviako 7 guneko babestutan.

Basoak soiltzea, kolonizazioak aurrera egitea eta, horrekin batera, hidrokarburoak ateratzeko lanak egiteko zabaltzen ari diren bideak mehatxu handia dira lurraldearentzat. Gainera, agregakinen eta agregatuen harrobiak ere ustiatzen ari dira, alde batetik, bideak mantendu eta eraikitzeko; bestetik, zelaiguneak berdintzeko, eta, azkenik, Gran Chacoko Yacuiba udalerrian likidoak erauzteko instalazioen plataforma ezartzeko.

### 2.1.3. Bestelako presioak eta eraginak: likidoak erauzteko instalazioa

Bolivian 2013. urtean inbertsiorik handiena izan duen proiektu energetikoetako bat da. Técnicas Reunidas enpresa kontratatu zuten eraikuntza-lanetarako, 500 milioi dolarren truke –2013an, 373 milioi euro inguru ziren–. Ondorioz, enpresak Espainian zituen akzioen balioak gora egin zuen bat-batean.

Aurreikuspenen arabera, 2014ko bigarren seihilekoan hasiko dira lanean. Instalazioaren bidez, gasaren osagai astun guztiak bereizi eta metano-korrontea goian utzi nahi da, hori baita

Argentinara esportatzen dena. Hortaz, lehen fase horren helburu nagusia esportazioa da. Ateratako gainerako produktuek hainbat xede dituzte, baina industria petrokimikoan erabilitakoak dira kaltegarrienak. Hain zuzen ere, Boliviako estatuak industria petrokimiko bat eraiki nahi du instalazio horren ondoan, industrializazio esaten dionaren bigarren aldian.

“Bi urte baino gutxiagoan, TR enpresak oso ibilaldi bizkorra egin du Bolivian”, esan du enpresak Bolivian duen kudeatzaile Gerardo Rodríguezek. Hala ere, ibilaldi horretan itzalak ere badira. 2012ko uztailan, honako hauek atxilotu zituzten, instalazioak esleitzean izan zen ustelkeriazko eskandalu batean: YPFB enpresan likidoak bereizteko instalazioetako kudeatzaile den Gerson Richard Rojas Terán eta YPFBko funtzionarioa eta Río Grande eta Gran Chacoko instalazioak kontratatzeke prozesuetako YPFBko Batzorde Kalifikatzaileko kide den Agustín Javier Ugarte Méndez. Lehena Repsol-YPFren enpresa subsidiarioa den Astra Evangelista SAri (AESARI) esleitu zioten, eta bigarrena Técnicas Reunidasi.

Bestetik, kontuan izan behar dugu Gran Chacoko instalazioa non eraiki zuten: Guarani Herriaren Batzarrak Jatorrizko Lur Komunitariotzat jotako lursailaren gainean. Yacuibako Yaku Igua Guarani Herriaren Batzarreko kapitain nagusi Jorge Mendozak salatu duenez, hasieran, zerga-lurrak zirela adierazi zuen INRAK, eta arrazoa eman zion guarani herriari; baina, azkenean, lursailen *jabea* agertu zen. Hala, bada, lurrak desjabetu egin zizkieten, eta bertan behera utzi zuten Hidrokarburoen Legeak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenak eskatzen duten kontsulta eta parte hartzeke prozesua.

Orduan, Yaku Igua Guarani Herriaren Batzarrak instalazioa hartu zuen. Hilabete batzuetan blokeoak izan ziren, eta “garapenerako oztipoa” zirela leporatu bazieten ere, azkenean, Guarani Herriaren Batzarrak konpentsaziorako hitzarmena sinatu zuen YPFB enpresarekin. Horren bidez, erantzukizun sozialeko proiektuetan 14 milioi boliviar inbertituko zituela agindu zuen estatuaren enpresak, eta nekazarien komunitateek ere jasoko zutela proiektu horien onura. Gatazka horren aurrean, Técnicas Reunidas enpresako Boliviako kudeatzaileak adierazi zuen “YPFB da negoziatu behar duena; horrelaxe dago gure kontratuan jasota”. Lursailean nekazarien sei komunitate daude, instalazioaren lurrekin muga-mugan ia eta Aguaragüe zeharkatzen duten gasbideetako baten balbula batek inguratuta. Komunitate horiek eta kontratazioa bertan egiteke eskatzen zuten langabeen multzo batek bat egin zuten Guarani Herriaren Batzarrak proposatutako blokeoekin.

Bi aldetako negoziazioak izan ziren, herri indigenen eta enpresa transnazionalen artean. Bolivian, mota horretako gatazkak daudenean, indigenek ez dute estatuaren laguntza jasotzen, nahiz eta estatua neutrala ez izan, bera ere kaltetutako alderdia baita eta ahulenen eskubideak bermatu behar baititu. Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren politika erabiltzen dute transnazionalak, gizarteko eta ingurumeneko gatazkak konpontzeko.


## 2.2. Dimentsio kulturala

### 2.2.1. Herri indigenen eskubideak

Gizartean izaten diren inpaktuek lotura estua dute ingurumenaren gainean izaten direnekin. Uraren eskasiak eta kalitate txarrak gatazkak sortzen ditu jendeguneetan, eta, parkean eta



horren eraginpeko inguruan, herri indigenak (guarani eta weenhayek herriak) eta nekazariak daude. Bestetik, inpakturik nabarmenenetako bat komunitateen artean pizten diren liskarrak eta zatiketa dira, enpresa handiak kooptatzeko praktikez baliatzen baitira eta dohainak eta konpentsazioak ematen baitizkiete norbanakoei edo talde txikiei, erauzketako proiektuen aurka dauden jarrerak ahultzeko.



Fuente: VV.AA. (2011).

Herri indigena batzuk, weenhayek herri adibidez, higitu egin behar izan dira, erauzketajardueren ondorioz. CERDET-Villamontesko abokatua eta Organización de Capitanías Weenhayek y Tapiete de Tarija (ORCAWETA) erakundeko lege-ordezkarria den Franco Duráñen ustez, “petrolio-enpresen pizgailuak piztuta dauden tokietan, ehiza desagertu egin da. Weenhayek herriak askoz ere urrutiago joan behar du”.

Aguaragüe ez da oraindik herri indigenen lurralde gisa sailkatu, baina herri horiek arbasoen lurraldetzat hartzen dute. Ingurunea suntsituta eta ur-iturburuetara iristeko sarbiderik gabe, gazte indigena askok hirietarantz eta Argentinarentz migratu du. Bestetik, petrolioaren arloko enpresek eskaintzen dituzten konpentsazio ekonomikoek ondorio txarrak izan dituzte, zatiketa eta liskarrak piztu baitituzte komunitateen baitan, eta, diru-kopuru horiek jasota, komunitateen bizimodua eta kultura arras aldatu baita. Villamontesko udal-zinegotzia eta alderdi horretako Guaraní Herriaren Batzarreko kapitain nagusia den Alberto Villarroelen arabera, “konpentsazio ekonomikoek gatazkak pizten dituzte gure jendeguneen artean”.

## Kudeaketa partekatua

Parkea 2000. urtean sortu zen, baina 2007ra arte Boliviako Gune Babestuetako Zerbitzu Nazionalak (SERNAPEk) ez zuen langilerik bidali hara. Bestetik, bidali zituen langileak ez ziren aski, gunearen tamaina eta bertan zeuden arazoek konplexutasuna aintzat hartuta, eta, gainera, ia ez zuten ekipamendurik, ez eta aurrekonturik ere. Jarduneko zuzendaria eta lau parke-zaindari daude, eta 108.307 hektareaz arduratu behar dute. Onartutako 108 ingurumen-pasibo daude bertan, eta lurraldearen % 70 baino gehiago ikertzeko eta ustiatzeko jardueren arriskupean dago.

SERNAP zerbitzuak eta Guarani Herriaren Batzarrak parkea kudeatzeko hitzarmen partekatua dute. Hitzarmen horrek hobetu egiten ditu, nolabait, berez aski mugatuak diren estatuko erakundearen gaitasunak, komunitatearen parte-hartzea lagungarria baitaio. Dena dela, partekatutako kudeaketa gatazkatsua da. Alde horretako komunitateek (guarani eta weenhayek herriek eta nekazariak) salatzen dutenez, ingurumeneko lizentziak ez dira betetzen, eta maiz ez da aurretiazko kontsultarik egiten. Timboy putzuan, adibidez, ingurumen-lizentziak aritu arren, ez dituzte konpromiso guztiak betetzen, eta, ondorioz, komunitatearen ur-iturburua suntsitu dute bide bat eraikitzean.

## 3. Ondorioak eta proposamenak

Boliviako oraingo prozesuak ez du hausturarik ekarri kudeaketa neoliberalen ikuskerarekin. Aitzitik, estatuko ekonomiak erauzketa-jardueretik duen mendekotasuna gero eta sakonagoa da, eta, atzerriko enpresa-kapitalen eta kapital pribatuen eskutik, areago sendotzen ari da lehengaiak esportatzeko herrialdearen izaera. Ekonomiak gero eta mendekotasun handiagoa du lehen mailako hiru gairen (hidrokarburoen, mineralen eta nekazaritzako eta abeltzaintzako gaien) esportazioen gehikuntzarekin. Egungo estatuaren politikak atzerriko enpresen interesen mende jaio eta garatu dira.

Horrek lehengaien nazioarteko prezioak igotzeko eta jaisteko zikloetan sortzen duen ahultasunaren ondorioz, hazkuntza ekonomikoa egiturazkoa eta eutsiezina da. Hortaz, ezinbestez hedatu behar dira herrialdean jarduten duten eta atzerriko eskuetan dauden erauzketarako ekintzailtzak, eta, aldi berean, atzerriko inbertsio berriak erakarri behar dira, horiek gabe, gobernuaren agendako hazkuntza-igurikimenak ez dira beteko eta.

Oraingo gobernuaren arabera, “estatuaren eta enpresa transnazionalaren arteko harreman berria” bazkideen arteko harremana da, ez ugazaben artekoa. Mota horretako harremanarekin, politika publikoak estatuaren interesen kontrakoak dira eta, gero eta gehiagotan, enpresek gobernuaren kudeaketari ezartzen dizkioten interesak bete behar dituzte. Estatuaren eginkizuna azpikoz gora geratu da: atzerriko enpresek zeregin nagusia betetzen dute ezinbestekoak diren jarduera ekonomikoetan, eta, gainera, estatuaren politika haien zerbitzuan jarri dute. Ondorioz, politika hori gero eta uztartuago dago enpresen politikarekin. Izan ere, gaur egun, inbertsio publikoa funtzionala da enpresentzat, herrialdean dituzten ekintzailtza ekonomikoari eusteko eta areago sakontzeko enpresek beren kabuz egin beharko luketen inbertsioaren zati handi bat estaltzen duelako.



Azterketan landutako testuinguru horretan, mugimendu sozialek eta irakaskuntzaren eta giza eskubideen arloetako erakunde eta instituzio batzuek hiru auzi nagusi aldarrikatzen dituzte, besteak beste. Lehenik eta behin, burujabetza nazionala berreskuratu behar da sektore estrategikoetan, transnazionalak Boliviako natura-baliabideak atera ez ditzaten, gizartean, lan-munduan eta ingurumenean kostu baxua duen lehengai gisa. Bigarrenik, herrialdeak duen ondare naturala babesteko borrokari eutsi behar zaio, eta neurriak hartu behar dira, babestutako arloak eta herri indigenen lurraldeak ez desegituratzeko, gaur egun sakrifizio-alde horietarantz hedatzen ari baita erauzketako jardueren muga. Azkenik, erauzketako jarduerak kaltetutako herrien eta komunitateen talde-eskubideen eta giza eskubideen babesa aldarrikatzen dute. Herri indigenek aurretiazko eta behar bezala informatutako kontsulta askea egiteko duten eskubidea errespetatu behar da, estatu plurinazionalako legeek onetsitako Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena eta Herri Indigenentzako Nazio Batuen Adierazpena nazioarteko tresnak betez, besteak beste.





Koaderno honetan jasotako ikerketek proposamen hau jasotzen dute, zalantzan jartzen dute korporazio handiei lotutako “garapena”, politika hegemonikoek akumulazio eta hazkunde logikekin jarraitzeko multinazionalak aktore nagusitzat jotzen duten momentu batetan. Transnazionalak leku eta herri jakin batzuetan eragindako ondorioei buruzko lekukotasun, datu eta erregistroen bitartez, gutxiengo batek –akziodun handiek eta goi-mailako zuzendariak– lortutako irabaziak gizartearen gehiengoaren aurrerapenarekin eta ongizatearekin identifikatzen dituen logika hori hautsi daiteke.